

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **GENEROAREN ERAIKUNTZA GORPUTZ HEZKUNTZAN GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Iztueta Gartzia, Kepa.

ZUZENDARIA: Lasarte Leonet, Gema.

**2019**

## **Laburpena**

Lan honek eskolan eta zehazki Gorputz Hezkuntzan generoaren eraikuntza nola egiten den aztertzea du helburu nagusizat, ikasle naiz irakasleek haien artean dituzten harremanak, zapalkuntzak, jarrerak ... oinarri izanik. Horretarako, Gipuzkoako ikastola batean 8-12 urte bitarteko ikasleekin eginiko behaketan, Euskal Herriko Unibertsitatean genero formakuntza duten 3 irakasleekin eginiko eztabaida taldean eta generoari buruzko marko teoriko batean oinarritu gara, ikuspuntu feminista bat ardatz izanik. Horrez gain, bertan ikusi eta interpretaturiko emaitzekin hainbat ondorio atera ditugu eta etorkizunerako erabilgarria izan daitekeen esku hartze bat proposatzen dugu, zeinak kirol nahiz Gorputz Hezkuntzako jarduera batzuetan gaur egungo antolaketa ereduarekin hautsi eta genero guztiak batera aritzen diren jarduerak barnebiltzen dituen.

*Hitz gakoak:* Hezkidetzeta, gorputz hezkuntza, multigenero kirola, feminismoa.

## **Resumen**

Este trabajo tiene como objetivo principal analizar la construcción del género en la escuela y concretamente en educación física, teniendo en cuenta las relaciones, opresiones, actitudes... que tienen entre ellos y ellas tanto los y las estudiantes como los profesores y profesoras. Para ello nos hemos fundamentado en una observación realizada con niños entre 8-12 años de una escuela de Guipúzcoa, un grupo de discusión llevado a cabo con tres profesoras formadas en género de la Universidad del País Vasco y un marco teórico centrado desde una perspectiva feminista. Además, con los resultados logrados hemos deducido varias conclusiones y hacemos una propuesta que puede ser válida para el futuro, basada en ejercicios donde todos los generos participan juntos y que tienen como objetivo romper los patrones de hoy en día.

*Palabras clave:* Coeducación, educación física, deporte multigénero, feminismo.

# AURKIBIDEA

<b>1-</b>	<b>SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>3</b>
<b>2-</b>	<b>MARKO TEORIKOA.....</b>	<b>4</b>
	2.1. Feminismoak eta bere historia .....	5
	2.2. Sexu genero sistema .....	8
	2.3. Hezkidetza .....	10
	2.4. Multigenero kirola .....	11
	2.5. Antolaketa .....	12
	2.6. Zer dio curriculumak?.....	13
<b>3-</b>	<b>HELBURUAK .....</b>	<b>15</b>
<b>4-</b>	<b>METODOLOGIA .....</b>	<b>15</b>
<b>5-</b>	<b>EMAITZEN INTERPRETAZIOA .....</b>	<b>18</b>
	5.1. Eztabaida taldearen emaitzak .....	18
	5.2. Behaketaren emaitzak .....	21
<b>6-</b>	<b>ONDORIOAK ETA PROSPEKZIORAKO PROPOSAMENAK.....</b>	<b>25</b>
<b>7-</b>	<b>GORPUTZ HEZKUNTZAN MULTIGENEROA APLIKATZEN: PROPOSAMENA..</b>	<b>29</b>
<b>8-</b>	<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....</b>	<b>37</b>
<b>9-</b>	<b>ERANSKINAK.....</b>	<b>41</b>

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egungo gizartean, generoaren trataera desegokiak eragindako ezberdintasunek ondorio handiak izaten dituzte haur eta gizaki orok egin ohi dituzten ekintza askotan. Izan ere, haurrek ikusten dutenaren imitazio eta arauen bitartez barneraturiko modeloetan oinarrituz sortzen dute haien nortasuna eta ondorioz, genero nortasunak ere oso paper garrantzitsua jokatzen du gure pentsatzeko modu eta jokabideetan (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009). Rol hauen baitako jokabideak gorputz hezkuntzan modu adierazgarriago batean islatzen dira, izan ere, haurrak askatasun gehiagorekin jokatzen dute espazio honetan ikasgeletan baino eta txikitatik genero bakoitzaren arabera portaera eta jarrerak are gehiago ikustarazten dira. Gainera, bibliografia zientifikoak diotaren (Alfaro, 2008) arabera, gorputz hezkuntzako orduetan eta kirolean oro har, mutilek neskek baino protagonismo gehiago izaten dute zenbaitetan inkontzienteki bada ere. Gaur egun oraindik, beraz, gorputz hezkuntzan rol eta estereotipoen ekoizpen sistematikoak arazo hau garatzen du ia kasu gehienetan, portaera eta jarrera ezberdinen bitartez.

Jarrera hauen bitartez, neskei feminitate ideala barneratu nahi izaten zaie eta gizonezkoei aldiz, indarra, bortizkeria eta antzeko jarrerei loturiko ekintzak lotzen zaizkie (Scraton, 2000). Honen ondorioz, oso ohikoa da jarduera edo jokoetan haurrak generoaren arabera banatuta jokatzea, mutilek neskek baino parte hartze handiagoz jokatzea, zenbait neskek ekintza batzuk egiteko beldurra izatea ... Egoera honi aurre egiteko, rol hegemoniko hauek deseraiki behar dira, hau da, "emakume subjektuak" duen irudiak amatasun, zaintzaile edo gorputz femenino perfektuaren ideari erantzuteari utzi behar dio (Diez, 2006) eta mutilei identitate maskulinoa eraikitzean sorturiko nortasun hegemoniko hori kuestionatzen irakatsi behar zaie, aniztasuna kontuan hartu al izateko (Ceballos, 2012 ).

Horrez gain, historikoki bizi eta biziraun duten zibilizazio guztietan erreferente izan da gorputza, eta gorputza idealizatzen gorputza zigortzera igaro da (Sierra, 2007). Honi lotuta, azken urte hauetan, emakumearen estetikaz edo osasunaz baliatuta, kontsumorako tresna bihurtu da gorputza, emakumeengan bereziki (Vizcarra, Garay, 2014). Honetaz baliatuz, merkatu kapitalistak emakumeak produktu gisa erreproduzitzera daramatza, haien gorputzak etekina lortzeko baliatuz eta norberaren gorputzari salneurri edo balio bat jartzera eramanez.

Azken urteotan genero aldetik zenbait aurrerapen egon badira ere, Vilodre Goelnerrek aipatu bezala (2008, 6.or.), "gorputz-hezkuntzak, hezkuntzaren parte izanik, ez du lagundu hezkuntzan dagoen sexismoa aldatzen eta eraldatzen, guztiz aurkakoa baizik". Historikoki, medikuntza eta biologia zientziek berea duten eredu positibistan oinarritu da hezkuntzaren eremu hori. Honen aurrean, funtsezkoa da, hezkuntzaren lerro honek dituen erronka eta

esku hartzei erreparatzea, ezberdintasun eta zapalkuntza horiekin amaitu eta beste hezkuntza eta gizarte anitz bat sortu al izateko bereziki. Aurretik aipaturiko aurrerapenak bereziki, lege aldetik egin dira, baina ezin ditzakegu lege hutsean geratzen utzi eta horretarako *curriculum*, dekretu edo legedietan ezarritako hori praktikan aplikatzen jakin beharra dago.

Ikerkuntza honen foku nagusia gorputz hezkuntzan oinarriturik badago ere, beste hainbat arlori ere erreparatzea funtsezkoa da, hala nola, ikuspuntu feminista ezberdinek zer dioten, rolak nondik bereganatzen ditugun, generoaren eraikuntza zeren arabera zehazten den ... Honen gauzatzeak, espazioaren jabeakuntza, eskola kirolaren antolaketa ereduan eta beste hainbat esparrutan ikus ditzakegu eta hauek identifikatzea oso garrantzitsua da. Honen aurrean, genero anitzez osaturiko kirol baten beharra proposatzen dute Miguel Vicente-Pedraz eta Maria Paz Brozas Polok (2017), aurrerago azalduko den bezala.

Beste hitz batzuekin esateko, lan honen helburu nagusia, Gorputz Hezkuntzan genero ezberdintasunak nola islatzen diren aztertzea izango da. Horretarako, eginiko behaketa kritikoan, eztabaida talde batekin eginiko solasaldian eta bilaketa bibliografiko batean oinarritu gara; azkenik, honi aurre egiteko proposamen edo aukera bat aurkezten dugularik (multigenero kirola).

Sarrera honen bukatze aldera, Gorputz Hezkuntzan genero ezberdintasunak nola islatzen diren ikusteko, marko teorikoan landuko diren azpi-gaiak aipatuko dira. Aurretik esan bezala, hau aztertze beharrezkoa da behaketa kritiko bat egitea eta hori kontuan hartuz eta galdera hori erantzute asmoz marko teorikoan hainbat azpi-gai landuko ditugu: 1. Feminismoak eta sexu-genero sistema 2. Egungo espazioaren eta Gorputz Hezkuntzaren antolakuntza eskolan 3. Multigenero kirola edota generoaren ezabapena kirol jardunean.

Behin marko teorikoa eginik, helburuak aipatuko ditugu eta horren ostean metodologia laburki esanda marko enpirikoa garatuko dugu.

Horretarako, eta curriculumari ematen zaion garrantzi eskasa zein den jakinik, ikastola bateko egoera aztertuko da, non, ikasgelako eta gorputz hezkuntzako saioetan hurrek dituzten jarrerak, ezberdintasunak ... behatuko diren. Honen inguruko iritzia eta ikuspuntua zein den jakiteko elkarrizketa batzuk ere egingo dira eztabaida taldea metodologia bezala hartuta. Hori egiteko unibertsitateko nahiz ikasgelako zenbait irakasle ezberdinen ikuspuntua ere balioztatuko da bertatik zenbait emaitza kualitatibo lortu eta ondorioak ateratzeko.

## **2. MARKO TEORIKOA**

## 2.1. Feminismoak eta bere historia

Bizi garen gizarte honetan, oso lotuta ikusten da “feminismo” hitza emakumeen presentzia eta aldarrikapenarekin. Hala ere, filosofia politiko honek gizartearen ezjakintasun hutsa erakusten du, mugimendu honek bere barnean ikuspuntu ezberdinak biltzen dituelako eta emakumeen zapalkuntza salatzeaz gain, genero berdintasuna lortzea baitu helburu, gizonezko eredu hegemonikoa deuseztatu eta sexu-aniztasuna aldarrikatzearekin batera. Mugimendu hau, gainera, ordena zalantzan jartzen duenaren aldetik, ezegokitzat hartua da orden horretaz baliotzen direnengandik (Varela, 2008).

Nolabait definizio zabal bat emate aldera, esan daiteke feminismoa XVIII. mende bukaera aldera sorturiko mugimendu soziala dela, non emakumeak jasandako zapalkuntzaren gaineko kontzientzia hartzen duen kolektibo gisa (Sau, 2000). Mugimendu honek aldaketa ugari jasan ditu bere hastapenetik. Orduetik gaur egun arte, hainbat aldaketa eta etapa ezberdinak bizi izan ditu hiru garai eta “olatu” bereiz ditzakegularik: lehena, bigarrena eta hirugarrena.

Feminismoaren sorreraren aurretik, Errenazimendu garaian emakumeek jada beraien aldarriak eginak zituzten emakume izateagatik jasaten zituzten egoerengatik, baina oraindik ez zen feminismo mugimenduaz hitz egiten. Mugimendu sozial honen lehen agerpenak Frantziako Iraultzaren garaian koka ditzakegu. **Lehen olatua** ilustrazio garaia deritzonaren testuinguruan gauzatzen da. Bertan Olimpia de Gouges edo Mary Wollstonecraft bezalako emakumeek garrantzia handia izan zuten egindako idatzi eta aldarrietan (Varela, 2008). Garai honetan kokaturik, mugimendu honen lehen aldarri nagusienetako bat aurki dezakegu Poullain de la Barreren eskutik; honek, *“adimenak ez du sexurik”* lelopean, emakumeen hezkuntzarako eskubidea aldarrikatu zuen. Frantziako iraultzak, historikoki aldaketa handiak ekarri bazituen ere, emakumeen egoera are gehiago okertu zuen. Horren lekuko da, Rousseauk, Ilustrazioko filosofo garrantzitsuenetakoak, esanikoa, nork denen berdintasuna aldarrikatzen zuen arren, emakumeen bazterketa desiragarri ikusten zuen, familia modernoaren egitura berria eraikiz, feminitate idealaren irudiarekin batera (Cobo, 1995).

XVIII. mendeko emakumeen aldarrikapen nagusienak, hezkuntzarako eskubidea, lanerako eskubidea, ezkontzazko eskubidea eta seme-alabekiko eta botorako eskubidea izan ziren. Aldarrikapen hauek, *“kexen koadernoak”* deiturikoan biltzen zituzten, hauek kontuan hartzen ez bazitzaizkien ere (Varela,2008).

Testu honen aurrean, Olimpia de Gougek (1791), iraultzak emakumeen eskubide politikoak ukatu zituela salatu zuen, eta ondorioz, iraultzaileak gezur batean murgiltzen zirela

berdintasun eta askatasunaz hitz egitean. Urte bat beranduago, Wollstonecraftek (1792) sexu berdintasuna, independentzia ekonomikoa eta parte hartze politikoaren beharra babestu zituen bere liburuan. Horrez gain, emakume eta gizonezkoen arteko botere harremanak eraikuntza sozial baten ondorio zirela salatu zuen.

Sufragismoaren mugimenduarekin batera, hasi zen feminismoaren **bigarren olatua** garatzen eta Estatu Batuetan izan zuen oihartzun handiena lehenbizi, 1848.urtean. Urte hartan, ezaguna den *Manifestu komunista* garatu zuten Karl Marx eta Friedrich Engelsek. Testuinguru honetan, "*sentimenduen adierazpena*" edo *Seneca Follseko deklarazioa* deiturikoa sortu zen, eta hau izan zen lehen programa politiko feministetako bat. Bertan, emakumeei ukatzen zitzaizkien eskubide hiritar eta juridikoak salatzen ziren. Garai honetatik aurrera, Estatu Batuetan bereziki, emakumeak kolektiboki antolatzen hasi ziren, baina emakume sufragistak, berriro ere zapalduak izan ziren, botorako eskubidea ukatu baitzitzaien, 1920.urtean, eskubide hori lortzea lortu zuten arte, urte askotako borrokaren ostean (Varela, 2008). Mugimendu hau babesten zutenek, boto eskubidetik hasita, aurrerapen eta beste hainbat eskubideren jabetza aldarrikatzen zuten. Aipagarria da, XIX. mende amaieran, emakume sufragista eta sozialista batzuen arteko banaketa bat eman zela, estrategia politiko ezberdinak baitzituzten. Honekin batera, garatu zen langileriaren feminismo sozialista, eta komunista. Hauen eskakizunen artean, maitasun librea, soldata berdintasuna, abortuaren legalizazioa, etxeko lanen sozializazioa ... zeuden besteak beste.

Dena den, XIX. mendean, kapitalismoaren sorrerarekin, emakume asko etxeko jardunean geratzen ziren, haien senarren nagusitasunaren erakusle, eta zaintzaren ardurapean. Honi lotuta, John Stuart Millek (1869) dioen modura, emakumeei txikitatik, beraien nortasuna gizonekoen erabat aurkakoa delakoaren ideiarekin hezten zaie: inizatibarik ez izaten eta beraien gogo eta nahitik at dauden ekintzetara bideratuz. Gainera, jarrera on guztiekin, emakumeen beharra besteentzako bizitzea dela barneratzen zaie eta ondorioz beraiantzako bizi beharreak, zapalduta bizi dira, beste batzuen menpe. Dena den, emakume hauek ere antolatzen hasi eta lehen aldiz feminismoa, korrante sozial internazional, autonomo eta antolatu gisa azalduko da, XX. mende hasierarako pisu handia hartu zuelarik. Bestalde, garai honetan zegoen emakumeen irudi eta ereduarekin erabat hautsi zuten ideiak garatzen ere hasi ziren. Horren adibide dugu Emma Goldman anarkista, nork, askatasuna denaren hasiera zela eta sexu arteko harremanak erabat askeak zirela esaten zuen.

Lehen Mundu Gerra eta bereziki Errusiar Iraultza (1914-1917) amaitzean, hainbat aldaketa eman ziren, herrialde askotan emakumeen botorako eskubidea lortzea esaterako. Honen ondorioz, emakume ugari, militantzia utzi zuten helburuak bete zituztelakoan.

Hainbat urte eta gero, Simone De Beauvoirrek (1949) *Bigarren Sexua* izeneko lana argitaratu zuen. Honekin, feminismoa birsuspertzea lortu zuen eta bertan gaurdaino dirauten gai askoren inguruan hitz egin zuen, hala nola, emakumeak gizonezkoen aldean beti bigarren plano batean geratzen zirela eta gizonezkoa dela munduaren erdigunea, hau da, androzentrismoa. Gainera, generoaren ideiaz ere mintzatzen da bertan honako esaldi ospetsuarekin “ez gara emakume jaiotzen, hura izatea iristen da”.

Varelak (2008) dioenez, **hirugarren olatua** deritzona, 60.hamarkada aldera hasten da garatzen. Lehen aipatu bezala, faxismoak eta Bigarren Mundu Gerrak, emakumeen mugimendua “isilarazi” zuten. Horrez gain, emakumeak beraien lanetatik kaleratu eta gizonezkoek hartu zituzten haien postuak, kontsumorako produktuak ekoitzi eta “etxe emakumeei” saltzeko. Hirugarren fase honi hasiera emanez “*izenik ez duen arazoa*” leloa jarri zion Betty Friedanek (1963) bere liburuaren lehen kapituluari. “*Feminismoaren mistika*” deituriko liburu honetan, emakumeen rola zertan zetzan ere zehazten hasi ziren, honen jatorria aztertuz, dena den, honek Estatu Batuetako erdiko klaseko emakumeei soilik egiten zien erreferentzia, patriarkatuari uko egin eta beste aukerarik eskaini gabe. Honen aurrean, emakume ezkertiarrek, sistema kritikatzten zuten, arrazista, sexista, klasista eta inperialista zelakoan, eta hau iraultzearen beharra aldarrikatzten zuten.

70ko hamarkadaz geroztik feminismo barneko korrante eta mugimendu ezberdinak azaltzen joan dira. Esaterako, feminismo erradikala 1967-1975 bitartean sortu zen Estatu Batuetan eta gero egindako ekintzak mundu osoan zehar zabaltzen joan ziren. Hauek gizonezko guztiek patriarkatuarengandik onura ekonomiko, sexual eta psikologikoak lortzen zituztela salatzen zuten eta hainbat aldarrikapen zituzten, esaterako eta garrantzitsuenetako bat, bikote harremanetako askatasun sexual eta autonomia lortzea. Honekin lotuta, Kate Milletek (1970), *Politika Sexuala* kritikatzten du, armadan, industrian, teknologian, unibertsitateetan, zientzian, politikan, finantzan ... eta ondorioz, botere bide guztiak gizonezkoen eskutan daudela, gaur egungo egoeraren gisa.

Varelak (2008) dioen gisa, feminismo barnean korrante berriak sortzeak, ez du esan nahi haien artean talka batean daudenik, zenbaitetan hala bada ere. Garai, leku eta egoera bakoitzera moldaturiko bide ugari sortu dira. Emakumeek, lorpen asko lortu dituzte haien borrokarekin baina gaur egun ere, oraindik, arazo, diskriminazio eta opresio askori egin behar diete aurre munduko txokotietan.

Gaur egungo gizartean eta aurreko historiaren ondorio, Scratonek (2000), feminismo korrantearen barnean, intentsitate maila eta ideologia ezberdineko korranteak bereizten ditu: feminismo liberala, erradikala, marxista eta sozialista. Honen arabera, *lehenak*, ez du



hartzeko kontuan testuinguru soziala botere-harremanak zehazterako orduan eta demokrazia liberal batean oinarritzen da. Gainera, tesi honen helburua neskek posizio pribilegiatuago bat lortzea da, posizio horiek hautsi beharrean baino. *Bigarrenak*, gizon-emakumeen arteko botere-harremanak ditu ardatz eta ikasgelako mutilen nagusitasuna salatzen du (arreta eta espazio fisiko zein morala monopolizatzen dutelako). Ideologia honen arabera, sexualitatearen bidezko opresioa erabiltzen da eta gizonezkoen sexualitateak emakumeak kontrolatzeko balio dute. Heziketa fisikoari dagokionez, emakumeei feminitate ideala barneratu nahi izaten zaie, eta gizonezkoen aldiz indarkeria eta indarrarekin loturiko jarrerak. *Feminismo marxistak*, erreproduzio sozialak klase-harremanetan oinarrituta daudela dio, emakumeen zapalkuntza, familiar duten egoera eta laneko banaketa sexualaren ondorio izanik. Honi aurre egiteko, emakumeak langile klasearekin bat egon behar du burgesiak ezarritako baloreen araberrako hezkuntzarekin hausteko. Gizonezkoetan aldiz, nortasunaren eraikuntza lantzearen beharra aipatzen da. Bestalde, heziketa fisikoak klase-harremanak sortzeko duen eragina kontuan harturik, zapaldu ororen batasuna bermatu behar dela dio. Azkenik, *feminismo sozialistaren* aipamena egiten du Scratonek. Ikuspuntu honek, feminismo erradikal eta marxista ditu oinarri, sistema patriarkal eta kapitalistaren arteko lotura hartzen baitu arazo nagusizat. Ezberdintasun eta zapalkuntza hauekin hausteko, maila sozial, ekonomiko, kultural zein ideologikotan arreta jartzearen beharra azpimarratze du eta honekin batera epe labur zein luzerako helburuak jarri behar direla.

Korrante ezberdin hauek kontuan hartuz, funtsezkoa da gure hezkuntza eremuan, klase ezberdinetako haurren loturak, egoerak eta gaitasunak aintzat hartzea. Zenbait pertsonen hurrei horrelako gaiak barneratzea zaila dela dioten arren, nabaria da inkontzienteki bada ere erreproduzio kultural hau jasaten dutela, horregatik aldaketa produkzio gisa jokatzeko gai ere badira. Horregatik, funtsezkoa da hurrekin botere-harreman hauen inguruko lanketa egitea, klase elkartasuna sortu eta feminismo kritiko batetik abiatuta aldarri hau aurrera eramanez aldaketa eragile sortzeko. Arazoaren erroa generoa ez ezik, androzentrismoa da, problematika konplexuago bat barnebiltzen baitu eta sexu eta generoa klase, adin edo jatorri sozial bezala ikertzea (Rodriguez, 2006). Hori horrela izanik, emakume eta gizonezko zapaldu orok dugu feminista izateko behar morala. Izan ere, feminismoa, gizon emakumeen ezberdintasun politiko, ekonomiko, juridiko eta sozialak defendatzen dituen sexismoaren kontrakoa da (Subirats, 2017).

## **2.2. Sexu Genero Sistema**

Aurretik aipaturiko feminismoaren historiaren barnean sexu genero sistemaren auzia sar dezakegu. XX. mendeko azken laurdenean, Gayle Rubinek eta Judith Butlerrek ordura arte

aipaturik ez zeuden hainbat kontzeptu berriren inguruan hausnartu eta sakondu zuten. Horien artean, Rubinek, sexu-genero sistemaren kontzeptua sortu zuen eta Butlerrek gaur egun, sexu-genero arloan eztabaidagai diren zenbait ideia plazaratu zituen (Suzzi, 2016). Esan behar da hainbat autorek laugarren olatu batean kokatzen dituztela, LGTB nahiz *queer* feminismoak. Feminismo hauen erdigunean subjektua ez da emakumea soilik, subjektu askotarikoa baizik. Esan dezakegu transfemenismoa sortzen dela eta lan hau horretan oinarritzen dela batik bat. Hau da, generoaren mugak ezabatzea, bitartasunetik aniztasunera transitatzea proposatzen da, genero identitatean nahiz adierazpenean.

Rubinek (1986) argitaraturiko lehen lanean, emakumeen zapalkuntzaren arrazoien inguruko ikerketa egin zuen. Bertan, sexu-genero sistemaren lehen aipamena egiten da eta bertatik abiatuta, harreman sexual, produkzio harremanen eta botere-harremanen inguruko gogoeta kritikoa ikus daiteke. Aitu honen hitzetan, sexu-genero sistema, gizarte batek sexualitate biologikoa, giza produktuetan eraldatzeko eta eraldaturiko giza behar horiek sortzeko antolaketa multzoa da (Rubin, 1986). Gainera marxismoari, sexualitatearen eraikuntza sozialaren inguruko gogoeta ez egitea kritikatzeko dio (Suzzi, 2016). Generoa eraikitzerako unean, bi alderdi nagusi aipatzen ditu Rubinek: batetik, gizonek bideraturiko emakumeen hartu-emanen oinarrituriko erlazio soziala, eta bestetik, erlazio sozial horretan oinarrituriko heteroarau konpultsiboa. Honen ondorioz, generoa, gizarteak inposaturiko banaketa bat da non, emakumeei "eme" eta gizonezkoiei "ar" izaten erakusten zaien. Gainera, gizaki orori sexu batekin identifikatzen eta horrekin batera aurkako sexuarekiko desioa izatera bideratzen zaio. Bestalde, neska eta mutilen ezarritako genitalen antolaketaren bitartez, beharrezko heterosexualitatearen araua ezartzen da, emakumeak gizonen menpe gutxiestearekin batera (Rubin, 1986). Rubinen ustez, egoera ideala, gizarte androgino bat izango litzateke, generorik gabea, non anatomia sexualak eraginik ez lukeen edukiko pertsona bakoitzaren izate, jarrera eta harremanetan.

Judith Butlerrek, 2007an argitaratu zuen lehen lana eta bertan generoaren inguruko lanketa ikus daiteke. Honen baitan, elkartrukeen mekanismoaren bitartez, non emakumeak gizonekin elkartrukuak diren bikote-harremanen bitartez, lortzen da emakumeengandik urruntzen den gizonezkoen identitatea bereganatzea. Harreman hauek, desira homosozial batean daude oinarrituta eta ondorioz sexualitatea erreprimitzen da. Butlerrek (2007) dio, egitura estrukturalista hau, botere-harremanetan oinarrituta sortua dela.

XX. mende erdialdetik aurrera, feminismoaren barnean genero kontzeptuaren esanahia, kulturalki ezarritako emakume eta gizonen arteko ezberdintasunetan aurrerapen garrantzitsua izan zen. Gainera, 1980. hamarkadan sorturiko ikuspuntu berriek, sexuarekiko

beste pentsamendu eta begiratzeko modu bat ekarri zuten. Honi lotuta, 90.hamarkadan, **Queer teoria** sortu zen. Teoria hau, garaiko sexualitate hegemonikoarekiko eta honek dakartzan ondorioekiko desobedientzian oinarritzen da (Castelar, 2014).

Cordobak (2005) dio, Queer teoriak, honako puntu hauek dituela ardatz besteak beste: sexualitatearen desnaturalizazioa, sexuaren desnaturalizazioa, gay eta lesbianen diskurtso eta politika berriak, heterosexualitatearen kritika eta identitatearen kritika. Honi jarraiki, kategoria sexualak dikotomia zehatz eta aurrezarritako bati jarraitzen diotela jartzen du zalantzan eta ondorioz, gorputzaren arautze bat ematen dela, non pertsona bakoitza bere harremanak eta desirak mota jakin bateko gorputzetara bideratzera “behartuta” dagoen. Norbanako bakoitzaren identitateagatik zapalkuntza jasaten zutenek, queer aliantza edo teoria delakoa sortu zuten. Aliantza hau ez zuten osatu ideia eta pentsamendu bereko pertsonak soilik. Ezberdintasunak ahuleziatzat hartu ordez, gainontzekoak ulertu eta bakoitza den bezalakoa dela onartuz, teoria honetan ekintza, proiektu eta praktika politiko bateratu bat sortu zuten (Butler, 2007). Autore honek dioenez, Queerrak ez du zertan sexualitatearekin ikusi behar, izan ere, zenbait kasutan, sexualitateagatik zapalduak izan direnak giza eskubideak ukatuak izan dituztenekin borrokatu izan dute eta ondorioz, zapalduak eta baztertuak izan diren komunitate ezberdinetako pertsonak aurki ditzakegu bertan. Bestalde, ezkontza lege ez baztertzailleak izatearen beharra azpimarratzen da eta harreman hauek bi pertsonaren artekoak zergatik diren kritikatzan da, lege aldaezin eta ukaezin bat balitza bezalakoan.

### 2.3. Hezkidetzak

Aurretik aipatu bezala, historian zehar emakume eta gizonei erabat desberdina izaten eta adierazten irakatsi zaie. Hau da, bakoitzak rol eta estereotipo bitarrei erantzunez eraiki du bere identitatea, bakoitzari rol bat emanez eta jarrera jakin batzuk jarraitzea behartuz, alegia. Baina ez hori bakarrik, izan ere, garen hori eraikitzeaz gain, modu bitarrean adierazten ere erakutsi bazaigu. Horrela ar, gizon eta maskulino alde batetik, eta bestetik, eme, emakume eta femeninoa izaten ikasi dugu. Gainera, hezkuntza deritzonari buruz jaso eta ulertu izan duguna, hau da, aditu, irakasle edo profesional batek norbaiti transmitituriko ezagutza multzoa, haurrentzat soilik pentsatua izan da, zenbait haur baztertzuz haien sexu, etnia, klase sozial, kultura ... arabera (Subirats, 2017).

Horren adibidetzat Espainiako estatu mailan eta Euskal Herrian, XVIII. mende amaieran, neskentzako soilik ziren lehen eskolak sortu zituzten, XIX. Mende osora eta XX. mende hasiera arte iraun zutenak. Subiratsen (2017) esanetan, eskola hauetan, sexuaren arabera bereizteaz gain, ikasitako edukiak ere ezberdintzen zituzten eta mutilen curriculumean

irakurketa, idazketa, aritmetika, historia edo geografia bezalako edukiak agertzen ziren. Neskek aldiz, jostera eta otoi egitera bideratzen zuten haien denbora. Honi aurre egiten lehenetarikoa, *Institucion Libre de Enseñanza* delakoa izan zen, hezkidetzaren oinarriak ezarri zituena. II. Errepublikaren batera, hezkidetzeta, eskola publikoetako arau ezinbestekoa bihurtu zen. Gainera, aurretik sexuaren arabera bananduta zeuden eskoletako haurrentzako eskola mistoak sortu zituzten. Hala ere, 1936.urteko altxamenduak, lorturiko aurrerapen hauek zapaldu zituen. 1970. urtean, Hezkuntzaren Lege Orokorrak, eskola misto edo nahasiari berriro ireki zizkion ateak eta gaur egun, oso orokortuta daude. Dena den, gaur egun ere, oraindik diskriminazio bazterketa eta ezberdintasun ugari ikus ditzakegu eskola hauetan eta ikasgeletan sexu eta genero kategoria hauek bizirik dirauten bitartean, non banaketa estrategiak erabiltzen diren, normalak hartuak diren gorputzak erreproduzitzen eta doilorrak diren beste zenbait gorputz baztertzen jarraituko da, hezkuntza, erreprodukzioarako indarkeria instituzio bilakatuz (Castelar, 2014).

Subiratsek (2017) dioen gisa, ezberdintasun hauek antzemateko ez da nahikoa mutil eta neskek lorturiko maila akademikoetan jartzea arreta. Hezkuntza, pertsona ororen eraikuntza prozesua da, haien inteligentzia eta sentsibilitatea garatzeko unea eta baita haien erlazio, ohitura eta baloreena ere. Hau aldatzeko, beharrezkoa da aldaketa kultural bat ematea, gure kultura erabat androzentrikoa delako, hau da, gizonezkoa du ardatz eta esparru guztietan maskulinitatea lehenesten da. Horretarako nahitaezkoa litzateke generoaren egituratzea curriculumean, (Vizcarra et al., 2015).

#### **2.4. Multigenero kirola**

Vicente Pedraz eta Brozas Polok, sexu guztiak barne hartzen dituen kirol antolakuntza baten proposamena egiten dute (2017). Haien esanetan, gaur egungo gizartean nabarmentzen diren kirolean, nabaria da gizonezkoen kirolei emakumeenei baina garrantzi handiagoa ematen zaiela. Arazo hau begi-bistakoa ez bada ere, kirolak hainbat hamarkada daramatza genero erreprodukzioarako material hegemoniko gisa. Dena den, hainbat ikuspuntu kritiko azaleratu dira honen aurrean beste ikuspegi edo proposamen batzuk azaleratu eta egoera honi buelta emateko. Vicente-Pedraz eta Brozas-Polok (2017) aipatu bezala, kirolean emakume eta gizonezkoen artean ematen den banaketa horrek ezberdintasunak areagotzen ditu, genero aldetik nahiz inongo sexu ezaugarririk ez duten edo ikuspuntu ezberdina duten pertsonen parte hartzea debekatuz.

Horrez gain, boteredunek kirola jada ezarrita dituzten genero patroien horiek erreproduzitzeko erabiltzen dituzte, beraien intereseko balioak sustatuz eta botere-ezberdintasun horiek areagotuz. Horretarako, kirola balore pedagogiko gisa sustatzen dute,

hauek finantzatzuz eta babesak emanaz, eta haurrek goi-mailako kirolari hauek eredu gisa hartzen dituztenez gero, txikitatik erreprodukzio hau ematen hasten da. Bertatik ondorioztatu daiteke, emakume kirola gutxietsia egotearen arrazoiak lehenago datozela botere harremanetatik, emakumeen gaitasun ezagatik baino.

Kirolean aurki ditzakegun ezberdintasun sexualetan oinarrituz, ikuspuntu ezberdinak aurki ditzakegu: alde batetik, feminismo liberalak urrats eta garaipen gisa hartzen du emakumezkoen parte hartzeak gora egitea. Honen aurrean, kritikoagoak diren ikuspuntu feministek guztiz gizonezkoek ezarritako kirol hegemonikoa den aurrean parte hartu behar dutela salatzen dute, eta honek ezberdintasunak areagotu besterik ez dituela egiten diote, gizonek ezarritako patroi eta interesetara mugatzen baitira (Theberge, 1981). Honela, zapalduak prozesu honetan beti asimilazioa jasan behar du, zapaltzailearen logikan sartzea eragiten baitu.

Honen aurrean, berdintasuna printzipio orientagarri bat balitz, jada zenbait kategoria zehaztuta egongo lirateke altuera, pisu eta beste batzuekin zenbait kirolean egiten den bezala. Horrela genero guztiak kontuan hartzen diren kirol batean 2-3 kategoria zehaztuko balira pisu, altuera edo beste hainbat ezaugarrien arabera, generoa bigarren plano batean geratuko litzateke. Vicente eta Brozasek (2017), bi aukera proposatzen dituzte kirolaren antolaketa hau aurrera eramateko: lehena, kirolaren baldintzak borroka fisiko eta sinbolikoak dakarren gordintasunarekin onartzea izango litzateke. Bigarrena aldiz, parte hartze segregatuaren desnaturalizazioan lagunduko lukeen oreka mekanismoak ezartzean oinarrituko litzateke, non, diskriminazio positiboa bilatuko luketen kuota eta beste zenbait formulen bitartez generoaren identitatea bigarren plano batean geratuko litzakeen.

Gaur egungo kirola gizonezkoek sorturiko eta hauen mesedetan oinarrituriko eraikuntza bat da, genero segregaziorako erabilia. Ondorioz, ez da soilik emakumeen kirolak komunikabideetan oihartzun gutxiago duela, ezta hauen esfortzu eta sakrifizioa kirolean gutxiesten dela, edota finantziario askoz ere baxuagoa duela soilik, edo kirol maskulinoaren hasierako animazio gisa erabiltzen dela, hauek jasan beharreko mespretxuzko hizkuntza paternalistaz gain adierazle maskulinoak iraunarazteko azpikategoria gisa funtzionatzen du (Vicente eta Brozas, 2017).

## **2.5. Antolaketa**

Gaur egun, hezkuntza erakundeetako gorputz hezkuntzan eta kirol hezkuntzan, oro har, botere harremanetan oinarrituriko eredu batean oinarrituriko antolakuntza da nagusi. Eredu

honek gizartean nagusitzen den sexu-genero sistemari jarraitzen dio eta gizarte antolakuntza gisa eredu sexual dualista du ardatz.

Gizarte honetako kirol antolakuntza moderno honen sorrera gizarte industrialaren testuinguruan eta horrenbestez kapitalismoaren sorkuntzarekin batera koka daiteke. Sistema honek Klub eta Federazioen existentzia ekarri zuen lehiakortasunera bideraturiko esparruetan, eta hauen bitartez, arrakasta pertsonal zein kolektiboa bilatzea da honen helburu nagusietako bat. Berdintasunean oinarrituriko sistema bat eraiki bazen ere, ikus daiteke kolektibo askotako bazterketa sozialaren erreprodukzio bide dela: zenbait arrazetako pertsonak, inongo jabetzarik gabekoak, emakumeek ... ez zituzten gizarteko zenbait eskubide bereganatu (Amoros, 1997). Emakumeen zapalkuntza justifikatzeko mekanismo ideologikoak, naturalki, gizakiek gaitasun ezberdinak zituztela zioten, eta ondorioz, emakumeei arlo publikoan parte hartzeko gaitasun eza leporatzen zitzaaien (Diez, 2006). Eredu moderno hau erabat androzentrikoa da, eta hori legitimatzeko, ekonomia eta politika munduko esparru askotan erabateko nagusitasun maskulinoa ikus dezakegu, non erreprodukzio instrumentu gisa jokatzeko den: botere politikoa, armada eta polizia, zientzia, erlijioa ... Kirola ere horietako beste erreprodukzio espazio eta baliabide bat da.

Kirolak, bere praktiken bitartez, sistema maskulinizatu hau erreproduzitu eta garatu du, non, gizon hegemonikoaren irudi diren indar ereduak ezinbesteko bihurtu dituen. Honen ondorioz, emakumeak berak gutxietsiak sentitzen dira askotan eta hau bistara dakartzaten hiru mito aipatzen dituzte Eitzen eta Sagek (1997): kirol-jarduera atletikoek, emakumea maskulinizatzen dute; kirol jarduerak emakumeen osasunerako kaltegarriak dira; emakumeek ez dute interesik kirolean: praktikatzeko gaizki egiten dute. Honen ondorioz, parte hartzeari dagokionez, askoz ere emakume gutxiago ikus ditzakegu kirol federatuetan. Dena den, kirolaren hastapenak eskolatik datozenez, komenigarria da, hauek zaindu eta ez erreproduzitzea. Gaur egungo eredu baztertzailer honi aurre egiteko, partekatzeak, lehiatzeak baina lehentasun handiagoa duen gizarte-eredua hartu beharra dauka helburu gisa kooperazio eta hezkuntzak (Saratxaga, 2014).

## **2.6. Zer dio curriculumak?**

Curriculum hezkuntza arloan, zer, nola, zerekin, noiz eta zertarako egiten den guztiarekin erlazonaturik dagoen gauza oro da (Coll, 1987). Hori horrela izanik, funtsezkoa den papera bete beharko luke hezkuntza arloan landu beharreko eduki, kontzeptu eta metodologietan besteak beste. Dena den, bertan jarritako ugari, sarritan bigarren maila batean geratzen dira. Gainera, curriculumean bertan agertzen ez diren alorrak ere jorratzen dira curriculum ezkutuaren bitartez, hala nola, botere-harremanak, kooperazioa,

errekonozimendua, sexismoa ... Lan hau egiterako unean, azken honetan jarriko dugu arreta.

Gaur egungo gizarte guztietan, emakume eta gizonak eginkizun ezberdinak dituzte. Honek, ez luke adierazi beharko ezberdintasunak egon beharko liratekeela, baina historikoki hala izan da eta opresio politiko, sozial, kultural eta pertsonalaren bidez gauzatu diren ezberdintasun hauek erreproduzio honetan laguntzen dute (Rodriguez, 2006). Curriculumak ere, hein batean, produkzio eta erreproduzio erreminta gisa jokatzen du gure gizartean. Haurrek etxean ikasitakoa oinarri hartuta, bertan ikusitakoa beste leku eta espazioetan islatzen dute. Hori kontuan izanik, emakumea etxeko lanetara eta gizonak aldiz lan publikoetara bideratuta daudela behatzen dute. Hezkuntza instituzioen aldetik, ez da oso ohikoa jarrera hauen aurrean esku hartzea eta honi aurre egiteko eta aldaketa bat bilatzeko Carmen Rodriguezek (2006) hiru elementu kontuan hartu behar direla dio:

- Genero berdintasuna lortzeko jarreretan “dimentsio ohikoenak” ezartzea.
- Metodologia bat ezartzea momentuko helburuei begira ( lekuan lekukoak).
- Aldaketarako aktoreei erreferentzia egitea, tipologia bat sortzeko beharrarekin.

Aldaketa hau ez da bat-batean sortzen eta sekuentziazko batean oinarritzen da, non emakumeen bazterketatik, modelo kultural ez sexistara igarotzen den. Modelo kultural honek, hezkuntzaren zabalkuntza, emakumeen ahalduntzea, emakume eta gizonen batasuna, emakumeen agerikotasuna eta eskola hezkidetzagile baten sorrera ekarriko luke (Rodriguez, 2006).

Hau guztia horrela izanik, gurean badugu kontraesana izan ere, gure curriculumak hitz potoloen bidez aurreikusten du eta bermatzen du genero berdintasuna. Horrela, indarrean dugun Heziberri curriculumak, elkarbizitzarako konpetentziaren barnean gorputz hezkuntzak balioetan hezteko laguntzen duela dio “harremanak kontrolatzeko giza trebetasunak eskuratzen irakasten baitigu; era berean, elkarlanerako, lankidetzarako eta bizikidetzarako jarraibideak ematen dizkigu, eta horiek guztiak egokiak dira, bai hezkidetzara eta genero-berdintasuna lantzeko, bai gatazkak arrazoiaren bidez eta bide baketsuetatik konpontzen trebatzeko” (Heziberri, 2016, 110.or). Horrez gain, lehen hezkuntzako 2.ziklorako ikasle bakoitzaren “eskubide-berdintasunaren aldarrikapena errespetatzea, inor ez diskriminatzea bere jaiotzarengatik, arrazarengatik, generoarengatik, orientazio afektibo sexualarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialengatik, eta ikuspegi horrekin jokatzea gizartean” lortu nahi dela esaten da, nahiz eta honi aurre egiteko baliabideak eskaintzen ez diren.

### 3. HELBURUAK

Ikerketa lan honen helburu nagusia, generoa kirol eta gorputz hezkuntzaren bidez nola sortu eta erreproduzitzen den behatzea eta horri buruzko informazioa lortzea izango da, egoera erreal bat erreferentziatzat hartuz eta bertan behaturiko egoera ezberdinetatik ateratako ondorioak teoria ezberdinek diotenarekin erlazionatuz.

Aipaturiko helburu orokorraz gain, hainbat azpi-helburu biltzen dira, zeinak helburu nagusirako aurkikuntzarako bidean lagungarri egin diren. Modu batera sailkatze aldera, horrela banatuko lirateke bigarren maila bateko helburuak:

- Irakurketak egin ostean, feminismotik hainbat hurbilpen egin eskolara eta generoa berdintasuna bermatzera.

- 1. Marko teoriko bat eginez.
- 2. Behaturiko ikastolako ikasle, irakasle, nahiz guraso ezberdinengan, gai honen inguruko kontzientzia ikusiz.
- 3. Gai honen zailtasunak adituekin eztabaida talde baten partekatuz.

Azken helburua hezkidetzaren sustatzea eta ikuspuntu kritiko bat garatzea da eta horretarako haurrak berdintasunean oinarrituriko gorputz hezkuntza bat jasotzeko eta inor baztertuta izatea saihesteko esku-hartze didaktiko praktiko bat egin dugu kirol multigeneroan oinarrituz.

### 4. METODOLOGIA

#### **Ikerketa kualitatiboa**

Planteamendu kualitatibo baten bitartez, gaur egungo hezkuntza sistemak eta zehazki gorputz hezkuntzak generoaren eraikuntzan duen eragina aztertu nahi da. Horretarako, Euskal Herriko ikastola konkretu bateko errealitatea aztertu dugu behaketa baten bitartez eta era berean Lehen Hezkuntzako irakasleak formatzen dituzten unibertsitateko hiru irakasleekin, zeinak generoan formatuak diren, bildu gara, eztabaidatzeko mahai inguru bat eginez.

Eztabaida taldearen bitartez, etorkizuneko irakasleak izango diren horiek nolako formakuntza jasotzen duten aztertu eta ikertu nahi izan da, hauek etorkizuneko irakasle izango diren heinean. Era berean, bertatik lorturiko informazioa eta egungo errealitateko egoera kontrastatu nahi izan dira, ikastola bateko egoera behatuz, irakasle nahiz ikasleen



jarrera eta ekintzak aintzat harturik. Hori horrela, teoria ezberdinek diotena eta behaketetatik ateratako emaitzak lotu nahi izan ditugu egungo errealitatean auzi honek nolako eragina duen jakiteko asmoz. Hori lotuta, uste dugu, esanahi eta prozesuen ulerkuntzatik abiatu behar dela kutsu eraldatzaile baten bidezko aldaketa soziala eman ahal izateko (Habermas, 1994).

Aipatu bezala, ikerketa hau **ikerketa kualitatibo** batean oinarrituta dago eta ondorioz, gure helburua errealitateko ekintzak ulertaraztea da. Bonilla eta Rodriguezek (2005) dioten moduan, metodo kualitatiboa kasu espezifikoak aztertzean zentratzen da eta ez orokortzean. Ardura nagusia aztergaia neurtzera ez ezik, hau kualifikatzera eta deskribatzera ere mugatzen da ezarritako ezaugarri determinanteak oinarri izanik. Hori dela eta, Guerrerok (2016) dio, ikerketa kualitatiboa fenomenoak aztertu eta haietan sakontzean oinarritzen dela eta era berean, testuinguru honetan sorturiko aldagaiak ez direla kontrolatu ezta manipulatuak ere, normalean, kasu honetan bezala, emozio eta gertakariak bezalako kontzeptu orokorrak direlarik.

Metodologia hau aurrera eramateko, 2 teknika nagusi erabili ditugu. Batetik, aurretik aipatu bezala, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru irakaslerekin buruturiko eztabaida bat eta bestetik, ikastola batean buruturiko behaketa bat.

### **Eztabaida taldeak**

Eztabaidaren gidoiaren ildo nagusiak honako hauek izan dira: formakuntza, taldekatzeak, espazioaren eraikuntza, ikasleen parte hartzea, jarrerak, curriculumak dioena, botere harremanak eta kirol antolaketa. Erabilitako gidioa ikusteko (Ikus Eranskinak 1).

Eztabaida taldea zer den definituz, Rubio eta Varasek (1997) diote informazioa jasotzeko teknika bat dela, zeina metodologia kualitatibo batean oinarritzen den eta errealitate soziala talde txikien bidezko eztabaiden bidez islatu nahi duen. Teknika honek parte hartzaileen interbentzio eta malgutasuna ahalbidetzen du, eta diskurtsoaren bidezko iritzia ematea du helburu, partaide guztiak helburu edo kontsentsu batera iritea beharrezkoa ez delarik (Guerrero eta Moral, 2018). Kasu honetan, eztabaidako partaideak generoari buruzko formakuntza izan arren iritzi eta ikuspuntu ezberdinak plazaratu zituzten, honek eztabaidaren aberasgarritasuna ahalbidetu zuelarik. Kruegerrek (1991) diotenaren arabera, eztabaida taldeak honako abantailak eskaintzen dizkigu: testuinguru sozial batean bizitza errealeko datuak lortzea, malgua izatea eta balio subjektibo handia. Dena den, desabantailak ere baditu, esaterako, elkarrizketetan baina kontrol gutxiago izatea, datuak analizatzeko zailtasunak, formazioa izatea edo talde bat biltzeko zailtasunak besteak beste.

## Behaketa

Eginiko eztabaida, egungo errealitatearekin kontrastatu eta loturak bilatzeko, ikastola bateko egoera ezagutzera joan ginen aste betez **behaketa kualitatibo** bat burutuz. Bertan, eztabaidan loturiko gai nagusiak aztertu eta behatu ziren egungo egoera ezagutzeko helburuz. Guerrerok (2016) dioen gisa, behaketa, ezagutza zientifikoaren oinarrietako bat da, ikerketa kualitatiboaren ardatzetako bat eta fenomeno edo gertaera bati buruzko informazio zehatza lortzea ahalbidetzen digu. Prozeduraren izaera selektiboa da eta helburu nagusia gai espezifiko bati buruzko ezagutza nahiz informazioa bilatzea da, horretarako zer behatu nahi dugun jakin beharra daukagu, kasu honetan, generoa gorputz hezkuntzaren bitartez nola eraikitzen den. Eginiko behaketa hau, ez zen obserbazio hutsera mugatu, izan ere, behaketa hau egin bitartean, irakasleari laguntzen aritu ginen, haurrak zer egiten ari ginen konturatu ez zitezen, ondorioz, parte hartzaile gisara ere jokatu genuen zenbait unetan. Behatutakoa ikusteko ikus erabilitako fitxak. (Eranskinak 2 eta 3).

## Partaideak

**Eztabaida taldeari** dagokionez, EHU-ko Lehen Hezkuntzako graduako hiru irakaslerekin (P1,P2 eta P3) bildu ginen eztabaida bat aurrera eramateko. Irakasle hauek, generoan formatuak egonik ikerketa gaiari buruzko haien iritzia jakitea ahalbidetu zigun.

**1.taula: Eztabaida taldearen parte hartzaileak**

Unibertsitatea	Parte hartzaileak	Espezializazioa
EHU	P1	Hizkuntza eta komunikazioa
EHU	P2	Gorputz Hezkuntza
EHU	P3	Matematikak

Iturria: egileak egina

Behaketa burututako ikastetxeari dagokionez, Gipuzkoako Ikastola batean eraman da aurrera. Ikastola hau, 1968an sortu zen, Frankismo garaian eta gaur egun arte dirau bere jardunak. Ikasle ia gehienak, herri bertakoak dira, nahiz eta inguruko herri txikietatik datozen ikasleak ere badauden. Horrez gain, aipagarria da ikastolen elkartearen barnean aurkitzen dela eta 1000 ikasle inguru dituela.

Behaketan, ikasgela bat baina gehiagoko hurrek hartu dute parte, adin eta garapen maila ezberdinak ikusi daitezkeelarik. 3 mailatan (3,5 eta 6) banatutako sei ikasgela behatu ditugu baina soilik 3.mailako gela batekin izan dugu aukera gelan bai gorputz hezkuntzan egoteko,

gainerakoekin gorputz hezkuntzako saio bana partekatu delarik. Gorputz hezkuntzako saio gehienetan futbola eta patinak landu dituztela ikus daiteke, eskola kirolean hau lantzen ari baitziren behaketa eginiko unean. Dena den, hauez gain, beste hainbat kirol eta jarduera egin zituzten, honek haurren jarrera eta harremanetan eragina duelarik.

## 2. Taula: Behaketa parte hartu duten ikasleak

IKASGELA	Adina	Kopurua	Sexua	Behaturiko jarduera
3.B	8-9	24	12 mutil eta 12 neska	Eguneroko jarduna + gorputz hezkuntza (futbola)
3.A	8-9	20	9 mutil eta 11 neska	Gorputz Hezkuntza (futbola)
5.B	10-11	24	14 mutil eta 10 neska	Gorputz Hezkuntza (futbola eta patinak)
5.A	10-11	22	11 mutil eta 11 neska	Gorputz Hezkuntza (patinak)
6.A	11-12	22	12 mutil eta 10 neska	Gorputz Hezkuntza (brileta, belaun futbola, joko libre)
6.B	11-12	23	11mutil eta 12 neska	Patinak

Iturria: egileak egin

Era berean, 4 irakasle izan dira behaketa honetako partaideak, zeinak 3 gorputz hezkuntzako espezialistak diren eta bat gelako tutorea. Irakasle ezberdinak behatzeak, haurren jarrera eta harremanetan paper honek duen garrantziaz jabetzeko aukera ematen du. Gainera, adin ezberdinetako irakasleak behatzeak metodologia eta ohitura ezberdinak dituztela ohartzeko aukera ematen du.

## 3.taula:behaketa parte hartu duten irakasleak

IRAKASLEAK	Ikasgaia	Adina	Sexua
B1	Ikasgelako tutorea	32	Emakumea
B2	Gorputz Hezkuntza	31	Gizona
B3	Gorputz Hezkuntza	58	Emakumea
B4	Gorputz Hezkuntza	30	Gizona

Iturria: egileak egin

## 5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

### 5.1. Eztabaida taldeen emaitzak

Formakuntzaren inguruan galdetzean ados daude esaterakoan ez dutela generoari dagokionez formakuntzarik jaso, eta gainera, esaten dute jaso dutena boluntarioki jaso dutela, *“gutxi batzuen borondatera eta jakintzara mugatzen da”* P1. Ados daude esaterakoan hezkuntzan generoak parte inportante bat izan beharko lukeela baina zailtasunak eta kontraesanak aipatzen dituzte, izan ere, idatzita dago formazio minimo bat jaso beharko litzatekeela eta curriculumean hori modu ofizialean agertzen bada ere ahots guztiak bat datoz landu beharko litzatekeela *“baina gero ez da lantzen”*. P2. Gai honen inguruan ahots guztiak bat datoz, legeek nahi jendarteak kezka handia azaltzen badute ere, hezkuntzak genero formakuntzan deus gutxi egiten duela irakasleak formatzeko orduan. Esan nahi da irakasleen esku geratzen dela generoan formazioa jasotzea nahiz eta curriculumak berdintasuna bermatu behar dela adierazi.

Hizkuntza sexistaren erabilerari dagokionez, garbi utzi dute hizkuntza sexista erabiltzen dela, izan ere *“komentario asko entzuten dituzte haien egunerokotasunean”* P3. Dena den, *“askotan hauek landu gabe geratzen dira denbora faltagatik”* P2. Beste zenbaitetan ere komentario hauek oso orokortuta daudenez, harritu ere ez direla egiten aipatu dute. Hau ikusita, esan daiteke horrelako egoeren aurrean irakasleek gutxitan hartzen dutela esku, askotan garrantzirik ere ematen ez zaielako eta beste zenbaitetan ohikotzat hartzen direlako, egunerokotasunean bizi dugunaren seinale. Honekin batera, ikasle nahiz irakasleak ez dira kontziente sarritan egoera hauek pasatzen uzteak lekartzakeen ondorioez, adibidez, hizkuntza mota hau erabiltzea zapalkuntza normalizatzen laguntzeko faktore bat gehiago dela.

Eztabaida taldeko gai konplexuenetarikoa taldekatzeei buruzkoa izan da, izan ere hiru parte hartzaileak bat etorri dira taldekatzeak egitea askotan zaila denarekin. *“Botere-harremanak ia talde orotan sortzen dira, zenbaitek gehiegizko parte hartzea izan ohi dutelako eta beste zenbaitek gutxiagia”* P1. Honen aurrean, *“talde orekatuak sortzeko (genero, izaera ... ) eta gauzak gaizki badoaz hausteko”* P2 aukera aipatu zen, *“mugimendua sortu eta harremanak ez finkatzeko helburuarekin”* P1. Iritzi hauei kontrajarriz, *“taldeak haiei egiteko aukera ematea”* P3 aipatzen da. Honen bidez askotan taldeak bide zuzenetik joaten dira, baina guztiak bat datoz, modu honetara askotan segregazioa sortzen dela, genero aldetik bereziki, *“oso talde misto gutxi sortzen baitira”* P3. Hau kontuan izanik, iritzi ezberdinak ikus daitezke parte hartzaileen artean. Normalean genero nahiz jarrera aldetiko oreka bilatzen dutela ikus badezakegu ere, taldeen funtzionamendu egokia bermatu eta ikasle guztien arteko harreman zein parte hartzea sustatzeko mugimendu eta estrategia ezberdinak erabiltzen dituztelako.

Espazioaren erabilera eta kudeaketaren gaia mahai gainean jarrita bat datoz lanketa handiagoa egitea posible eta beharrezkoa dela *“gehiago interbenitu beharko litzateke”* P1. Lehen hezkuntzan bereziki, taldekatze ezberdinak egiten saiatu beharko litzatekeela diote, inor baztertuta ez egoteko eta espazio aske eta seguruak sortzeko. Horren adibide gisa, *“forumak”* P1 aipatzen dira esaterako. Hala ere, honen aurrean, irakasleek zailtasunak dituztela ere aipatzen dute *“espazioak oso mugatuak izaten dira askotan eta honek muga asko sortzen ditu, elkarrekin lan egiteko, komunikatzeko ...”* P3. Horregatik, duten espazioa ahalik eta hobekien aprobetxatzeko metodologiak erabiltzea aipatzen da, kooperazioa esaterako. Honen bidez, *“espazioa irakaslean zentratu beharrean, haurrengan zentratzen da”* P2.

Jasotako erantzunen arabera, mutilek neskek baina parte hartze handiagoa izan ohi dutela argudiatzen dute, *“mutilek ausardia gehiago azaltzen dute publikoan hitz egiteko unean, neskek aldiz askotan parte hartzeko beldur izaten dira”* P2. Honi aurre egiteko, taldekatze ezberdinak egiteaz gain, pertsona bakoitzari bere diskurtsoa garatzeko aukera ematea proposatzen da *“nire ikasleek taldeka lan egiteaz gain, ikasle guztiek, gutxienez, zerbait denen aurrean egin behar izaten dute. Gaizki egiten badute ere ikasteko aukera dute eta ez badute egiten ez dute landuko gizonaek beti nagusitasun gehiago izango dutelarik lotsa edo ausardia gutxiago dutelako”* P1. Horrez gain, formazio eta hausnarketa berdinak egitea ere aipatzen dute, behatutako gertaera adierazgarriak aztertuz eta esku hartuz *“ia egoera gehienetan mutilek parte hartzeko erraztasun gehiago dute, ohitura kontua ere bada, baina askotan bultzadak emanez erraztu dezakegu lan hori”* P3.

Eztabaida taldeko parte hartzaileak irakasleak diren aldetik, autokritika ikus daiteke ikasleekiko dituzten jarrera eta aurreiritziei buruzko gaia aipatzean. *“Irakasleak ere gizartearen parte gara eta formakuntzan gabeziak izateaz gain, gizartearen parte garen heinean aurreiritziak izaten jarraitu eta horiek ikasleen jardunean eragin handia izaten jarraituko dute, sarritan inkontzienteki egin arren”* P3. Hau gainditzeko, lanketa bat egitea beharrezkoa dela argudiatzen dute, baina era berean, denbora mugatuak hau zailtzen duela diote, izan ere gehienetan ikasleak sakonki ezagutzeko ezintasuna nabaria da *“ikaslea ebaluatzen dugu askotan azterketa batekin, esaten duten zerbaitekin eta hau oso larria da. LH-n agian denbora gehiago dago hori lantzeko eta ikaslea benetan ezagutzeko eta ebaluatzeko”* P1. Aurreiritzi hauek landu eta hobetze aldera, zailtasunak konpentsatzeko ahalegina egin behar da, horiek hobetzeko esku hartuz.

Curriculumak eskola ia gehienetako proiektu eta programazioak bideratzen dituzenez gero, garrantzitsua da parte hartzaileek honi buruz duten iritzia jakitea. Hori horrela izanik, hiru

partaideak bat datoz curriculumaren trataera egokia egin behar denaren ideiarekin eta hau beharrezkotzat ikusten dute. Honekin batera, gaur egungo curriculumanda androzentrikotzat jotzen dute eta aldaketa eman ahal izateko esku hartzea beharrezkoa dela argudiatzen dute *“curriculum androzentrikoari aurre egiteko lanketa kontziente bat beharrezkoa da, material, jarrera ... aldetik”* P1. Irakasle hauek pertsonalki curriculumanda lantzen duten arren, orokorrean lanketa hau ematen ez dela salatzen dute honek ikasleengan eragina duelarik *“irakasle askok edukiak lantzen dituzte, baina lantzeagatik, ez hezkidetzarekin loturiko lanketa bat burutzeko helburuz”* P2.

Generoarekin loturiko botere-harreman hauek, eskolaz gain, gizarteko beste zenbait arlotan (familia, komunikabideak ... ) bereganatzen dituztela diote hiru partaideek eta ados azaldu dira eskola beste erreprodukzio faktore eta eragile bat delakoaren ideiarekin. Gainera, gizarteko rol hauek, izatez justu kontrakoak direla aipatzen du solaskideetako batek, baina gizartearen poderioz, inposaturiko modu batean bereganatzen dituztela interpretatu daiteke *“haurrak hezten doazen heinean gizarteko rolak barneratzen dituzte, rol hauek sortzez justu aldrebesak diren arren”* P1. Generoarekin batera, eskolan eta gizartean beste hainbat zapalkuntza mota ere sortu eta erreproduzitzen direla ere aipatzen dute *“generoa gizarteko kategorizazio bat da eta horrez gain beste botere.-harreman batzuk ere sortzen dira (hizkuntza, jatorria, klase soziala ... )* P3.

Azkenik, kirol antolaketaren inguruan galdeturik, partaideek ez dute jakin ideia argi bat adierazten, gaiaren inguruko iritzi garbirik ez izatearen edo ikuspuntu kontrajarriak izatearen ondorioz. Dena den, garbi utzi dute gizartean kirolak duen gaur egungo ereduarekin hausteko beharra dagoela, maskulinitate hegemonikoaren isla direlako gehienak *“nahiko iraultzailea izango litzake futbola bezalako kirol bat mistoa bihurtzea”* P3. Honetarako, kirol multigeneroaren apustua aipatzen da *“nahastu eta modu naturalean mugak hautsi ahal izateko esparru guztietan”* P1. Dena den, *“mistoa izateko zenbait baldintza bete beharko liratezke”* P2.

## **5.2. Behaketaren emaitzak**

Ikastolan behaturiko 4 irakasleek generoari buruzko nahikoa formazio ez dutela esan daiteke, izan ere, ez da honi buruzko lanketa espezifikorik behatu eta egoera adierazgarrien aurrean ez da honen inguruan asko sakondu, nola esku hartu jakin gabe geratu direlarik egoera askotan. Gainera, eskola orduetatik kanpo eginiko bileretan ere gai honi buruzko formakuntza falta ere agerian geratu da. Dena den, 4 irakasletik bik (B1 eta B2) zenbait unetan honi buruzko azaleko lanketa egin dute, taldekatzeak egiterakoan, jarduerak proposatzerakoan ... Ikasleen kasuan, aipagarria iruditu zaigu duten adina izanda, 4 ikaslek

izandako jarrera kritikoa kasu puntual batzuen aurrean *“haiek uste dute ez dugula ezertarako balio, baina ikusi nahiko nituzke haiek beste zenbait gauza egiten”* (5.A-ko neska bat).

Hizkuntza sexistari dagokionez, 3 irakaslek honen trataera eta lanketa egiten dutela behatu da, irain edo adierazpen sexistak entzunda ikasleei atentzioa deituz. Lanketa hau, bereziki ikasgelako orduetan egiten dela ere ikusi al izan da, izan ere, egon diren egoera adierazgarri eskas guztietan esku hartu da. Gorputz hezkuntzako egoeretan aldiz zenbaitetan pasatzen utzi dira, ohikoak izango balira bezala. Horrez gain, irakasleetako batek gorputz hezkuntzako saio batean sexu jakin batekin loturiko esapidea egin zuen :*“gela honetan justu neska batzuk zuek baino hobekak dira”* (B3). Mezu hau nahiko desagokoa iruditu zitzaigun, izan ere, gela horretako egoera ez ohikoa balitz bezala hitz egin zuen eta gainerako kasuetan mutilen nagusitasuna normala eta ohikoa balitz bezala hartu zuen, ikasleen arteko pentsamendu androzentrikoa ekoiztuz.

Ikasleen kasuan, oro har egindako behaketan, ez dute hizkuntza desagokia erabiltzeko joerarik. Hala ere, zenbait kasutan, eta hiruzpalau mutilen artean zenbait iruzkin sexista entzun ditugu *“zein koño da tipa hau?”* (3.B-ko mutil bat). Nesken artean aldiz, ez da horrelakorik entzun. Hizkuntza sexista hau areagotu egiten da gorputz hezkuntzako saioetan eta bereziki, mutilen ezaugarrietara egokitzen diren jarduera eta kiroletan. Horrela, taldekatzeak egitean, mutilek gehienetan neskek gutxiesten dituztela behatu da *“haiek abantaila dute mutil gehiago direlako”* (6.A-ko mutil bat). Gainera, mutilen hitz egiteko egoera une askotan askoz ere oldarkorragoa dela ere nabaritu genuen.

Taldekatzeen gaiari erreferentzia eginez, irakasle guztiek irizpide berdintsuak erabiltzen dituztela behatu da, izan ere oreka bat bilatu nahi izaten dute taldeen arteko ezberdintasun handiak ekiditeko. Dena den, ezberdintasunak ikusi dira gela barneko eta gorputz hezkuntzako zenbait talde egiterako unean. Gelako kasuan, irakaslea gaitasunen araberrako oreka bilatzeaz gain, jarrera aldeko oreka bilatzen saiatu da genero aldetik talde bakoitzean ikasleen kopuru berdintsua izatea bilatzeaz gain. Gorputz hezkuntzan aldiz, irakasle batek (B4) jarduera batzuetan trebeenak ziren ikasleak hautatzen zituen lehenengo, hasieran hautaturiko gehientsuenak mutilak zirelarik. Hauen gaitasunen araberrako talde orekatuak egitean, genero aldetik ere kopuru antzekoa izaten saiatzen zen irakaslea. Beste irakasleek aldiz (B2 eta B3) lehenik generoaren araberrako talde nahastuak egiteari ematen zieten garrantzia, gaitasunak bigarren maila batean utziz. Horrez gain, aipagarria da jarrera kontuak gorputz hezkuntzako taldekatzeetan ez zituzten hartzen kontuan.

Bestalde, hurrei taldekatzeak egiten utziz gero, ikusi da jardueraren arabera (kontaktuzko eta kirol lehiakorretan bereziki) neskek askotan beraien aldetik jokatzera nahiago dutela, talde

mistoetan protagonismo eta parte hartze askoz ere txikiagoa dutelako batik bat *“ez digute baloia pasatzen”* (6.A-ko neska gehienak). Mutilei aldiz, ez zaie horrenbeste axola talde mistoetan edo beraien aldetik jolastea futbolean esaterako. Patinetan aldiz, lehiakortasun mailarik ez zegoenez, guztiak gustura aritu zirela behatu genuen. Ikasgelako jardueretan, taldekatzeak egitean, gustuko zuten gaiaren arabera taldekatzen ziren, zeinekin ziren ez zekitelarik. Dena den, gelatik atera eta atsedean garaian, bazkal orduan ... neska eta mutil gehienak bereizita ibiltzen ziren.

Espazioaren erabilerari buruzko behaketari buruz, esan daiteke, irakasle bakoitzak honi buruzko lanketa ezberdin bat egiten duela. Batetik bi irakaslek (B3 eta B4) hau lantzen ez dutela behatu da, ikasleei libreki jolasten uzten dietelarik eta ondorioz espazio segururik gabeko eremu batean arituz. Beste biak aldiz hau lantzen dutela ikusi da eta honek ikasle guztientzako onurak dakartzala. Lehenak (B1), ikasgelako espazioa 4 ikasleko taldeetan banatzen du, talde bakoitzean behar eta gaitasun ezberdinak dituzten ikasleak aurkitzen direlarik. Gainera, harreman eta ikasle bakoitzaren izaera ere kontuan hartzen du ahalik eta tirabira gutxien izateko asmoz. Bigarrena (B2) gorputz hezkuntzako saioa hasi baino lehen, arauen bitartez espazio seguruak sortzen ahalegintzen da, segurtasuna bermatuz eta espazio seguruak sortuz. Horrez gain, zailtasunak dituzten ikasleei eremu errazago batean aritzeko aukera ematen die, konfiantza hartu eta nahi dutenean gainerako kideekin aritzeko *“oraindik patinetan oso ongi moldatzen ez zaretenak edo zuen bere burua gai ikusten ez zaretenak frontoian aritu zaitezkeite poliki elkarri lagunduz”*.

Irakaslearen lanketa eta kudeaketak ikasleen jarreran eragin zuzena duela ere ikusi dugu. Horrela, lanketarik gabeko ikasleen kasuan (5.B,3.A eta 6.A) ikusi da 10 mutilek eremuaren erdia eta gehiengoa hartzen zutela futbolean jolasteko eta bertan aurrean zutena kontuan hartzen ez zutela. Joko librekoa egitean, hiruzpalau neskek kantxaren iskinetan kokaturiko saskietan jolasten zuten (6.B), eta beste bik gimnasia erritmikoko uztailekin jokatzen zuten baina beti ere iskina batean. Patinetan neska gehienek trebetasun handiagoa izan arren, kontu handiagoz ibiltzen ziren aurrean zutenarekin eta inorekin tupust egitea ekidinez. Ikasgelan, irakaslea ez zegoen uneetan (atsedenetik bueltan, klasea hasi baino lehen ... ) korrika ibiltzeko joera zuten 4 ikasleak ere mutilak zirela ohartu gara.

Ikasleen parte hartzea sustatzeko, irakasle guztiek teknika ezberdinak erabiltzen dituztela ikusi da. Ikasgelan, irakasleak ozenki galderak egitean guztiek parte hartzea bilatzen zuen, gutxien hitz egiten zutenei hitza emanez. Gorputz hezkuntzan aldiz, hiru irakasleek teknika ezberdinak erabiltzen zituzten honetarako: arauak, zailtasunak zituztenei laguntza emanez,



taldekatzeak ... *“gola sartzeko taldekide guztiek baloia ukitu beharra daukazue gutxienez behin”* (B3).

Ikasleen artean aldiz ikusi da ikasgelan parte hartzearen pisua gehienetan mutilek hartzen dutela ozenki edo publikoan hitz egin behar denean. Beraien artean hitz egin eta talde lanean ordea, oreka handiagoa dago. Hemen ikus daiteke, 5 neskek publikoan hitz egiteko beldurra zutela gainontzekoek esango zutenaren beldur edo akatsak egitearen arduraz. Gorputz hezkuntzari dagokionez, futboleko bizpahiru mutilek hartzen zuten bere gain *“taldearen lidertza”*, eta neska gehienek askotan parte hartzeko beldurra erakusten zuten *“fuerteegi aritzen dira, ez dira kontrolatzen”* (5.Bko neska bat).

Sarritan jarrera desegoki eta inkontziente hauek izan arren, elkarren artean laguntzen direla ere agerian geratu da, haien kideren batek zailtasunik izanez gero laguntzeko prestutasuna adieraziz *“nahi duzu azaltzea nola egin?”* (3.B ko ikasleak). Hala ere, haien arteko irain eta gutxiespenak ere ikusi dira eta haien artean esku hartzen ez dutela ere behatu dugu. Irakasleak kasu hauen aurrean izandako jarrera, gehienetan pasiboa izan da, haien arteko liskar txikiak bailira bezala. Beste zenbaitetan ordea, irakasleak esku hartu dute *“zer eta zergatik esan diozu? eskatu barkamena”*(B1).

Orain arte aipaturikoa ikusi eta kontuan hartuz, agerikoa da irakasleek ez dutela curriculumak generoari buruz diotenari buruzko lanketa zuzen eta sakonik egiten. Zenbait unetan eta kasutan (espazioaren kudeaketa, taldekatzeak ... ) esku hartzen bada ere, oro har, ez zaio gai honi garrantzia ematen eta oso zeharka lantzen dela esango genuke. Ikasgelan, ez dugu behatu curriculum ofizialaz gaindiko lanketarik eta gorputz hezkuntzan ere, emozioak, genero harremanak ... oso azaletik landu dira, genero berdintasuna lortzeko ezer gutxi egiten delarik.

Honi lotuta, lehiakortasun osasuntsuaren trataera eskasa dela esango genuke, izan ere irakasleak bideraturiko jardura ugari oso lehiakorrak izan dira eta helburu eta aurkaritza jardueretan bereziki haur batzuek jarrera oldarkorrek erakutsi dituzte irabazteko nahi hutsaren ondorioz. Jarrera hauek, bereziki 3 mutilengan behatu dira, zeinak trebeak sentitzen diren horretan haien dohainak erakusteko beharra sentitzen duten (futboleko kasu). Neska gehienek, batek izan ezik, aldiz, beraien trebetasunak oso modu apalean erakusten dituztela ere behatu dugu, atentzioa deitu gabe eta elkarri lagunduz. Horrez gain, komunikabideek ikasleen jarreretan duten eragina aipatu nahiko genuke, ikasle ugari telebistan eta kirolari profesionaleri ikusitako gauzak errepikatzen baitituzte, askotan harrokeriaz.

Ikasleek haien artean dituzten botere-harreman hauek, oso barneratuta dituzte eta haien artean aginduak eman dituzten kasu gehienetan mutilek neskekiko izan dira, baita “lider” rola duten horiek besteekiko ere. Honek ikasleak haien artean zapaltzea eragiten du, eta batzuek besteek baino botere gehiago izatea hitz egiteko unean, erabakiak hartzeko unean eta baita parte hartzean ere. Irakasle ia guztiek horrelako egoeren aurrean, esku hartu dute, klasearen amaieran ikasleekin hitz eginez edo tutoretza orduetan, KIVA proiektuaren bitartez lanketa hau aurrera eramanez.

Azkenik, kirol antolaketaren inguruan aipagarria iruditzen zaigu behatu ditugun jarduerak nahiko ezberdintasun dituztela (futbola eta patinak). Bietan talde mistoak egin eta sustatu diren arren, futboleko nagusitasuna eta parte hartzearen ardura 7 mutilek hartu dute, neska ia guztiak, bat edo bi kenduta, askotan baloia ukitu gabe geratzen zirelarik eta ia parte hartu gabe. Honi aurre egiteko, 6.Bko ikasleekin irakasleak partidua egin baina lehen belaun futboleko jokatzeko proposamena luzatu zien, zeinean belauniko eta soilik eskuekin baloiari jo zitekeen. Bertan parte hartzea askoz ere gehiago zabaldu zen eta ikasleen gehiengoak gusturago aritu ziren. Patinetan aldiz, lehiakortasun ezak eta gaitasun maila ezberdinen ondorioz guztiak oso eroso aritu zirela esango nuke.

Behaketaz gain, praktikak ere eskola berean eginda, ikusitakoarekin esan daiteke orokorrean taldekatze mistoak egiten saiatzen direla gorputz hezkuntzako saioetan. Dena den, kirol misto hauen barnean arazoak sortzen dira ia kirol gehienetan, aurretik ezarritako arau batzuk ezartzen ez badira. Hori dela eta, mutilek haien “nagusitasuna” erakusteko aukera duten kirol jarduerak dituzte gogokoago eta neskek aldiz, horrenbeste kontaktu ez dituztenak.

## **6. ONDORIOAK ETA PROSPEKZIORAKO PROPOSAMENAK**

Eginiko bilaketa bibliografiko, eztabaida talde eta behaketaren emaitzetatik ondorioak ateratzeko, *triangulazioaren metodologia* erabili dugu. Estrategia honek aztergai den fenomenoaren ahalik eta modu aberasgarrienean ulertu eta interpretatzera garamatza. Gainera, lorturiko emaitzak modu kualitatibo batean interpretatzen ditugunez gero, esanahiei zentzua ematen saiatu gara emaitzak ikuspuntu subjektibo batetik behatuz eta metodo hau erabiliz (Mucchielli, 1996). Hori horrela izanik, eztabaida taldeko eta behaketako emaitzen arteko loturak bilatu ditugu, adituek diotenari erreferentzia eginez.

Hasteko, bildutako emaitzekin ondorioztatu daiteke gaur egungo LH-ko irakasleek ez dutela generoari buruzko nahikoa formakuntzarik jasotzen, izan ere, ez da honi buruzko lanketa espezifikorik ikusi eta norbaitek hala nahi izatekotan bere kabuz egin beharra dauka

eztabaida taldean aipatu bezala. Honen arrazoa, unibertsitate nahiz hezkuntza mailan auzi honi ematen zaion garrantzia eskasa da (Vizcarra eta al., 2015), non kontu hau landu beharrekoa dela esaten den eta hala adierazten den 2007ko martxoaren 22ko gizon eta emakumeen berdintasun eragingarrirako lege organikoko 24.artikuluan; *“hezkuntza instituzioek haien konpetentzien barnean curriculumean eta hezkuntza etapa guztietan emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun printzipioaren aldeko kurtso eta programak aplikatzea bermatu behar da”*. Dena den, eztabaida taldean jasotako informazioan nahiz behatutako egunetan kontrakoa ikusi da. Prospekzio gisa nahitaezkoa ikusten da modu sistematikoan eta serioan legeak dioena garatzea.

Behatu ditugun klaseetan, ikasleei generoa lantzeko aukerarik ez zaio eskaini eta 4 ikasleengan behatu den formazio eta ikuspuntu minimoa etxean jasotakoarekin lortu dute. Horrez gain, behatutakoari nahiz eztabaidan azaldutakoari jarraiki, ondorioztatzen dugu generoaren eredu bitarra erabat barneratuta dutela irakasle gehienek generoa mutil eta nesken arabera sailkatu dutelako, gainerako generoak baztertuz. Honen aurrean egoera ideala, gizarte androgino bat izango litzateke, generorik gabea, non anatomia sexualak eraginik ez lukeen edukiko pertsona bakoitzaren izate, jarrera eta harremanetan (Rubin, 1986). Hala ere hori lortzeko eta hezkuntza pertsona ororen eraikuntza prozesua dela kontuan izanik, beharrezkoa da aldaketa kultural bat ematea, gure kultura erabat androzentrikoa delako eta esparru guztietan maskulinitatea lehenesten delako (Subirats, 2017). Kultura hori jorratu nahian egiten da aurrerago Gradu Amaierako lan hau amaitzeko esku hartze proposamena.

Gaur egungo curriculumak erabat androzentrikoa dela kontuan izanik (Vizcarra et al. 2015), funtsezkoa da honen inguruko lanketa egoki eta kritiko bat ematea material, jarrera, eduki etab. aldetik eta ondorioz bertan irakasle, guraso nahiz ikasleei parte hartzen uztea. Behaketan ikusi ahal izan dugu irakasleek curriculumeko eduki garrantzitsuenak soilik jarraitzen dituztela, gorputz hezkuntzan eskola kiroleko gaiak jarraituz bereziki eta ikasgelan esku liburuetakoa. Hau gairak, ikasleen interesetatik abiatzea izan liteke proposatzen den ideia bat, non ikasleek ikusitako gabeziak landuko liratekeen irakasleek ikusitakoarekin batera. Aldaketa hau ez da bat-batean sortzen eta pixkanakako helburuekin lortu behar da. Esan nahi da emakumeen bazterketa albo batera utzita, eredu ez sexista duen hezkuntzaren zabalkuntza, emakumeen ahalduntzea, emakume eta gizonen batasuna, emakumeen ikusgarritasuna eta eskola hezkidetzagile baten sorrera lortzea duela helburu (Rodriguez, 2006).

Hizkuntza sexistaren erabilerari dagokionez, agerikoa da ikasleen ahotan oraindik adierazpen sexistak entzuten direla. Behaketan ikusi da hizkuntza sexista barneratuta

dagoela eta askotan ez duela irakasleria harritzen, ohikotzat hartzen direlako adierazpen sexistak. Bestalde, aipagarria da, ikasgelan adierazpen horiek gorputz hezkuntzan baina askoz ere deigarriagoak egiten direla, ondorioz bertan baino gehiago lantzen direlarik. Ikasleek oro har, hauek erabiltzeko joera handirik ez badute ere, ikusi dugu ia egunero entzuten dela horrelakoren bat eta bereziki hiruzpalau mutilen artean, lehiakorrek diren jardueretan. Lehen esan bezala, derrigorrezkoa ikusten da irakasleen formakuntza hizkuntza sexista antzemateko ikasleengan eta bidenabar ez erabiltzeko.

Taldekatzeak direla eta, komeni da esatea gaur egungo arlo konplexuenetarikoa dela irakasleentzako eztabaidan adituen ahotan ikusi den moduan. Ia guztiak ikasleen arteko oreka bilatzen saiatzen dira jarrera, gaitasun maila ezberdinak eta generoaren araberrako kopuru berdintasuna aintzat hartuz, baina behatutakoaren arabera esan dezakegu bereziki liskarrak egotea ekiditen saiatzen direla ikasgelan bereziki. Gorputz hezkuntzan konplexutasuna handiagoa da. Batetik, ikusi da irakasleek taldeak egitean gaitasunak begiratzen dituztela bereziki eta kirol gehienetan irizpide horren arabera aukeratzeko lehenik mutilengan arreta jartzeko joera izaten dutela. Gainera, liskarrak egotea normaltzat hartzen dute eta taldekatzeen artean ez diete garrantzia ematen bakoitzak duen parte hartze mailari. Kasu honetan, ikasgelan ez bezala, 12 neskatik 6k beraien aldetik jolastu nahi izan dutela behatu dugu, gusturago sentitzen direlako, protagonismo handiagoa dutelako eta bereziki beldurrik gabe jokatzeko dutelako. Ondorioztatzen da ikasleei taldeak egiten utziz gero askotan generoaren araberrako segregazioa sortzen dela, oso talde misto gutxi sortzen direlako. Eitzen eta Sagek (1997) dioten gisa, kirolak, bere praktiken bitartez, sistema maskulinizatua garatzen du, non, gizon hegemonikoaren irudi diren indar ereduak ezinbesteko bihurtu dituen.

Espazioak ematen dituen aukerei buruz, esan daiteke hau moldatzeak eta honen lanketa egiteak eragin zuzena duela ikasleengan. Hala ere, oraindik ere irakasle askok lanketa sakon eta handiago bat egitea funtsezkoa da gehiago interbenituz eta espazio seguruek sortuz, hau irakasle bakoitzaren esku geratzen delarik. Horretarako, metodologia ezberdinak, arauak, taldekatze eta espazioaren egituraketa ezberdinak ... erabili daitezke ikasle guztien ongizatea bermatzeko helburuarekin. Gorputz hezkuntzako zenbait saiotan ikusi dugunez, begi-bistakoa da espazio seguruek trebeak ez diren ikasleei konfiantza eskuratzeko aukera ematen dietela, eta bertatik abiatuz ikaskuntza prozesua eraiki dezaketela esparru orotan. Edonola ere, eztabaida taldeko kide batek aipatu gisa, hezkuntza esparru batzuek eskaintzen dituzten baliabide eta espazioaren egiturak aukera batzuk sortzeko zailtasunak ezartzen dituzte eremu faltagatik, arriskuagatik etab. Behaketan ikusi da mutilek espazioaren gehiengo hartzeko joera dutela, bertan nahi bezala ibiltzen direlarik, aurrean zer duten

berdin zaiela. Hori gutxi balitz, ikusi dugu nesken erdiak, iskina batean beste zer baitetan jokatzeko joera izaten dutela edo hala izan ezean kontu handiagoz ibiltzen direla elkarren artean errespetatuz eta minik ez hartzen saiatuz. Honen eraginez, mutilek espazioa bereganatzen dute. Saratxagak (2014) dioen gisa, eredu baztertzailer honi aurre egiteko, partekatzeak, lehiatzeak baina lehentasun handiagoa duen gizarte-eredua hartu beharra dauka helburu gisa. Prospekziarako hezkuntzan ikasleen arteko kooperazioak duen garrantzia azpimarratzen da.

Ikastolan irakasle gehienak ikasle guztien parte hartzea modu ezberdinetan (guztiei publikoan hitz egiteko aukera emanez, taldekatze ezberdinen bidez, arauak etab.) sustatzen saiatu badira ere, mutilek sarritan parte hartzeko joera handiagoa dutela behatu dugu, bereziki publikoan hitz egiteko unean ausardia gehiago dutelako eta neska asko aldiz, gaizki egitearen beldur direlako ... Talde lanean aritzean berriz, nahiko ondo moldatu dira, guztiek ekarpenak egiten dituztelarik. Gorputz hezkuntzan hau are modu handiagoan islatuta ikusi da, non mutilek beraien erreferentziaz hartzen dituzten kiroltan bereziki lidergoaren rola hartzen dute eta nesken ia erdia sarritan parte hartzeko beldur izaten diren. Ikusten den bezala, emakumeei txikitatik, beraien nortasuna gizonekoen erabat aurkakoa delakoaren ideiarekin hezten zaie, inizatibarik ez izaten eta beraien gogo eta nahitik at dauden ekintzetara bideratuz (Stuart Mill, 1869).

Egon garen ikasleek botere-harreman hauetako asko etxetik, komunikabideetatik ... bereganatzen dituzten arren, eskolak beste erreprodukzio eragile baten gisa jokatzeko duela behatu dugu eta horrez gain, beste zapalkuntza batzuk ere sortzen dituztela bertan (etnikoak, kulturalak, arrazistak ... ). Ondorioz, hauek ekiditen eta esku hartzen saiatu beharko lukete arazo txikienean esku hartuta. Behaturiko 3 irakasleek askotan arazoak ikasleei konpontzen utzi arren, horrelako jarrerak eta botere harremanak oso barneratuta izan ohi dituztela ere ikusi da eta zenbaitetan elkarren artean aginduak emateko joera izan ohi dutela ere, gehienetan mutilek neskei ematen dizkielarik eta haien artean lider rola duten haurrak sortzen direlarik. Oraindik ere diskriminazio bazterketa eta ezberdintasun ugari ikus ditzakegu eskoletan eta banaketa estrategia horiek bizirik dirauten bitartean hezkuntza, erreprodukziarako biolentzia instituzio izaten segituko da (Castelar, 2014). Ezinbestekoa ikusten da eskola genero asimetriaren erakunde ez ekoizle izateko irakasleriaren begirada eta prestakuntza bermatzea egunerokotasunean.

Azkenik, kirol antolaketari buruz ondorioztatu da eztabaida taldeko P2k esan bezala, kirol mistoak sustatuta baldintza batzuk beharrezkoak direla jarduna ondo joan dadin, bereziki kirol lehiakor eta kontaktuzkoetan, ikusitako belaun futbolaren adibidea kasu. Hala izan

ezean behatu dugu 12 mutiletik 8ik parte hartzearen pisua hartzen dutela bere gain eta neska erdia baino gehiagoren jarduna ezerezean geratzen dela parte hartzeko aukera erabat mugatuz. Honetarako, funtsezkoa da arauak aurretik zehaztea eta bereziki arau hauek ikasle guztien gaitasun eta baldintzetara egokitzea, aukera berdintasuna bermatuz, B2 irakasleak gorputz hezkuntzako zenbait saiotan egin bezala. Gizonezkoek ezarritako kirol hegemonikoa den aurrean parte hartzea beharrezkoa da, honek ezberdintasunak areagotu besterik ez baititu egiten gizonek ezarritako patroi eta interesetara mugatzen baitira. Hori gutxi balitz, talka honetan, zapalduak prozesu honetan beti asimilazioa jasan behar dute zapaltzailearen logikan sartzen baitira (Theberge, 1981).

## **7. GORPUTZ HEZKUNTZAN MULTIGENEROA APLIKATZEN: PROPOSAMENA**

Aipaturiko guztia kontuan hartuz, begi bistakoa da erronka handi batean aurkitzen gara. Eskolak erreproduzio faktore izateari uzteko eta aldaketa kultural bat lortzeko, irakasleen formakuntzatik abiatu behar da, beharrezkoak diren baliabideak sortu eta kontzientzia nahiz ikuspuntu kritiko bat sortzeko. Hau lortuta, lanketa sakonagoak egitea ahalbidetuko litzateke ikasle guztien ongizate eta berdintasuna bermatuko lukeen hezkuntza eredu eta hezkidetzagile batetarantz.

Horrez gain, ikasgelako jardunetik abiatuta, gorputz hezkuntzako jarrerak hobetzen saiatu beharko litzateke, bertan parte hartuz eta kudeaketa ezberdinen bitartez. Horretarako, espazio, taldekatze eta estrategia ezberdinez gain, multigenero kirola sustatuz hezkuntza esparru orotan. Honen bidez, gaur egungo kirolek ezarritako patroiekin hautsi eta berdintasuneranzko jarduerak sustatuko lirateke, generoak kontuan hartuko ez liratekeen kirol ereduak sortuz. Horretarako, instituzioen, gurasoen eta irakasleen esku hartzea beharrezkoa da, eskola kirolek abiatuta aldaketa honen oinarriak jartzeko eta etorkizun bateranzko lehen urratsak eraikitzeko.

### **Justifikazioa**

Gaur egungo gorputz hezkuntzan androzentrikoa den kirol eredu jarraitzen denez gero, eredu baztertzaile baten aldeko apustua egiten da txiki txikitatik gure hezkuntza esparruetan. Honela, mutilen mesedetan sorturiko kirol eta jarduerak nagusitzen dira gehienetan eremu hauetan, beste generoren batekin identifikatzen diren ikasle askoren partaidetza mugatuta geratzen delarik. Honek, ikasleen jarrera eta harremanetan eragin zuzena du, izan ere, mutilek nagusitasuna eta protagonismoa bere gain hartzen dute eta neskek zapalkuntza hori asimilatzen dute. Hori gutxi balitz, irakasle askok generoari buruzko formazio handirik ez dutenez gero, egoera hauek erreproduzitzen dituzte haien erabaki eta jardunarekin. Honi

aurre egiteko, irakasle askok eta bereziki eskola kiroleko antolaketak neska eta mutilek berezita jarduteko aukera jarraitzen dute, sarritan ezberdintasunak areagotzen direlarik.

Proposamen honekin aldiz, parte hartze segregaturaren desnaturalizazioan lagunduko lukeen oreka mekanismoak ezarriko lirateke, non, diskriminazio positiboa bilatuko litzakeen generoaren identitatea bigarren plano batean geratuz (Vicente eta Brozas, 2017). Horrez gain, ikasle guztiek haien gaitasunak baloratzeko aukera izango lukete eta ikasle oro maila berdinetik hasiko litzateke ikaskuntza prozesua garatzen. Honi lotuta, sexu guztietako kideen aukera berdintasuna sortzeko aukera litzateke.

Bestalde, gorputz hezkuntzako ordutegia nahiko mugatua dela kontuan izanik, proposamen hau ikasturte osoan burutzeko eginga legoke, non hilean behin gutxienez saio bat burutuko litzakeen eta bertako jardueretan harturiko ideiak kontuan izanik, saio eta jarduera berriak sortzeko aukera ematen den. Prestaturiko saio bakoitzarekin lantzen den kirol jardueraren baitako unitate didaktiko zabalagoak sortzeko aukera ere sor daiteke, proposamen hauetan gai bakoitza oso era mugatuan lantzen delako saioaren denbora kontuan hartuta.

### **Gaitasunak eta edukiak**

Konpetentzia eta edukiak zehazteko, Heziberri 2020 euskal curriculumean oinarritu gara. Bertan, oinarritzko zehar konpetentziei dagokionez elkarbizitzarako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia dira gehien nabarmentzen direnak beste zenbait ere zeharka lantzen badira ere. Oinarritzko diziplina barneko konpetentziei erreparatuz, konpetentzia motorraren barnean kokatuko genuke proposamen hau. Konpetentzia motorreko edukiei dagokionez, 5.eduki multzoari dagokion kultura motorrari egiten dio erreferentzia bereziki (Hezkuntza Saila, 2016).

### **Helburuak**

Esku hartze proposamen honek, hainbat helburu barnebiltzen ditu. Nagusiena gorputz hezkuntzan genero berdintasuna bermatzea bada ere, hainbat azpi-helburu ere sailkatu ditzakegu:

- Hilabetean gutxienez saio bat multigenero eredia kontuan harturik egitea.
- Ikasle guztien parte hartzeko eta gaitasunak garatzeko aukera berdintasuna bermatzea.
- Gaur egungo eredu androzentrikoarekin hautsi eta eredu hezkidetzagile baten aldeko apustua plazaratzea.

- Ikasleen guztien arteko harremanak sendotzea.
- Parte hartze segregatuaren desnaturalizazioan lagunduko lukeen oreka mekanismoak ezartzea.

### **Metodologia**

Saio hauen diseinurako estrategia gisa, ohikoak ez diren kirolak eta ohiko kirol moldatuak hartu dira ardatz. Hauen bitartez, haur guztien gaitasun maila orekatzea lortu daiteke, guztiak hasten baitira maila eta ezjakintasun antzekotik. Hortaz bereiz, kontaktu eta jarrera lehiakorrek sorturiko parte hartzearen beldurra murriztu eta ikasle orok gustura jokatzeko eta parte hartzea bilatu nahi da, gaitasun ezberdinetako jarduerak konbinatuz eta landuz.

*Kirol alternatiboak* oso aproposak dira eredu honen lanketarako, izan ere, eskolan eta gizartean oro har oso gutxi lantzen diren jarduerak dira eta ondorioz ikasleek hauekiko duten ezjakintasun eta trebezia maila normalean handia da. Honek, hezkidetzaren garatzea ahalbidetzen du, izan ere, hasieran behintzat, kirolaren ezagupen eta praktikari dagokionez ez dago sexu ezberdinen arteko ezberdintasunik (Aranes, Gartzia, 1999). Dena den, joko eta jarduerak hauen bitartez batzuk, sexu edo talde jakin batzuen mesedetan eginak daudela antzematen bada, joko hauek moldatzea dago, arauen bitartez bereziki aldaerak sortuz eta gure helburuetara hurbilduz. Moldaketa hauek, ohikoak diren kirol eta jardueren bitartez ere eraman daitezke aurrera, guztien parte hartzea sustatzeko, inor baztertuta ez izateko eta guztiek aukera berdina izateko helburuarekin.

### **Hautatutako etapa eta jarduerak**

Diseinaturiko saioak, 5. mailako ikasleentzat egokituak dira, 10-11 urte bitarteko ikasleentzat zehazki esanda. Behaketan ikusitakoaren baitan, aurretik jada rol eta jarrera sexistak batzuk barnatzen hasten badira ere, adin honetan hasten dira generoaren araberrako ezberdintasunak eta segregazioa islatzen. Gainera, kirol hastapenean murgiltzen diren garaia da ikasle askorentzat eta eredu berriak ezagutzeak, etorkizunean honen inguruko lanketak ekar diezazkieketen onurak bereganatzeko aukera ematen die. Adin hau aukeratzeko beste arrazoi bat, komunikabideetan ikusitakoak hauengan duen eragin handia da, bertan ikusitakoa imitatzen saiatzen baitira eta askotan jokabide desegokiak hartzen baitituzte. Horregatik, hau landu eta jokabide positiboak garatzeko aukera gisa ere planteatzen da esku hartze hau.

Aukeraturiko jarduerari erreferentzia eginez, mota eta gaitasun ezberdinak lantzeko kirol jarduerak ikus daitezke bertan. Batetik, *floorballa* aurki dezakegu, zeinak hockeyarekin



antzekotasun asko dituen. Kide bakoitzak bere sticka izanik, aurkako taldearen atean gola sartzea lortu beharra daukan taldeko kirola da. Kirol honek izan dezakeen zailtasuna ikusita, bi saio elkarren segidan lotzea proposatzen da. *Belaun futbole*an ere jokoaren helburu nagusia aurkakoaren atean gola sartzea da. Honako hau, futbolaren moldaketa bat da, non parte hartzaileak belauniko jarduten diren eta eskuarekin soilik kolpatu dezaketen baloia. Moldaketa honen bitartez, futbolean sortzen diren jarrera agresiboak murriztea lortu daiteke, ikasle guztien aukera berdintasuna areagotuz. *Patinei* dagokionez, ikasleen oreka eta koordinazioa landu daiteke. Oro har, ikasleren batek trebetasunen bat badu ere, ikasle guztiek antzeko maila izaten dute eta erronka ondorioz, norberak bere buruarekin ezartzen du. *Saskibaloia*ri erreparatuz, ohikoa den kirol batean aurkitzen gara, non askotan mutilek protagonismoa bere gain hartzen duten. Dena den, taldekatze eta arauen bitartez hau moldatu daiteke eta aukera berdintasuna lortze aldera. Azkenik, *badmintona* aurki dezakegu. Hemen jokoaren helburua moldatu daiteke, puntuazio arauak ezarriz, zelaia murriztuz ...

Laburbilduz landuko diren jarduerak ikasleen gaitasun maila antzekoa izatea ahalbidetzen dute, guztiak gustura senti daitezzen jokoan zehar. Jardunean zehar ordea, gauzak gaizki doazela behatuz gero hauek arauen bitartez moldatu daitezke helburu berriak zehazteko.

### Saioen diseinua

Saioen diseinua aurrera eramateko, 6 saioz osaturiko taulak osatu ditugu, non saio bakoitza hiru fase nagusitan bereizten den (hasierakoa, nagusia eta lasaitzekoa). Taula bakoitzean saio bakoitzean landuko diren ekintzak, hauen iraupena, helburuak, beharrezko materialak eta taldekatzeak zeren arabera egingo diren zehazten dira.

4. taula: saioen diseinua

<b>1.SAIOA</b>	<b>FLOORBALLA</b>			<b>Espazioa: kiroldegia</b>	
----------------	-------------------	--	--	-----------------------------	--

	Ekintzak	Iraupena	Jardueraren helburuak	Materiala	Taldekatzeak
<b>Hasierako fasea</b>	Sticka eta pilotarekin harremana zehazteko, ikasle bakoitzak bietako bana hartu eta zelaian zehar mugituko dira hau kontrolatuz. Pilota gutxi gorabehera kontrolatzen dutela behatzen denean, espazio bat mugatu eta gainontzekoekin talka ez egiten saiati beharko dira.	15 min	Materialarekin kontaktuan jartzea eta kide bakoitzak besteen menpe egon gabe haien gaitasunen arabera esperimendazioa egitea.	Stickak eta pilotak	Bakarka
<b>Fase nagusia</b>	Bost pertsonako taldeak egin eta izarra osatu paseak emanaz.	30 min	Talde lanean aritzeko oinarriak ikastea eta guztien parte hartzea	Stickak eta pilotak	5eko taldeak. Irizpidea: altueraren

	<p>Espazioa bi zelaietan banatu eta 4 talde egonik, 2 zelaitan banatuko dira ikasleak. Bertan aurkako taldeak pilota ukitu gabe 5 pase ematea lortu beharko dute. Hau lortuz gero, 10 pasera handituko litzake helburua.</p> <p>Erratza: Bi talde. Bakoitza zelai erdi batean pilotei kolpeak ematen irakasleak esandakoan haien zelaian ahalik eta pilota gutxien izateko helburuz.</p>		<p>sustatzea paseak emanez.</p> <p>Norbera bere ekarpenen bidez taldearen parte sentitzea.</p> <p>Taldeak egiteko egituraketaren bidez sexuaren arabeko taldekatzeen ohiturarekin haustea.</p>		<p>araberako oreka.</p> <p>10eko bi talde: aurreko 2 taldeak elkartuz.</p>
<b>Lasaitze fasea</b>	<p>Talde guztiak borobil handi bat egin eta stickarekin pilota ikaskideei pasatzen joan. Pilota heltzen zaion ikasleak saioan zehar nola sentitu den azaldu beharko du.</p>	10 min	Ikasleen emozio eta sentimenak lantzea modu dinamiko batean.	Sticka eta pilota	Talde handian

**2.SAIOA FLOORBALLA Espazioa: kiroldegia**

	<b>Ekintzak</b>	<b>Iraupena</b>	<b>Jardueraren helburuak</b>	<b>Materiala</b>	<b>Taldekatzeak</b>
<b>Hasierako fasea</b>	<p>Saioa hasteko, stickak eta pilotak hartu baino lehenago aurreko saioan eginikoa gogorarazi.</p> <p>Beroketa gisa "armiarma" jolasa baina bakoitza pilota batekin. Harrapatzaileen helburua pilota kentzea izango da.</p>	10-15 min	<p>Aurreko saioarekin lotura egin.</p> <p>Ikaskideekin harremanetan jarri jolas baten bidez</p>	Stickak eta pilotak	Banaka aurkariekin
<b>Fase nagusia</b>	<p>Minikirola: floorballeko partidu txikiak jolastuko dituzte 5eko taldeetan. Ez da atezainik egongo eta helburura jaurtitzeko taldekide guztiek gutxienez behin ukitu beharko dute pilota. Zelaia saskibaloiko txikia izango da. Talderen batek helburua lortuz gero, aurkari aldaketa egingo da.</p> <p>Floorball partidua: zelai osoan eta bi talde egonik (aldaketekin) floorballeko arauen araberako partidua jokatuko dute.</p>	30 min	<p>Aurretik ikasitakoa praktikan jartzea.</p> <p>Guztien parte hartzea bermatzea.</p> <p>Aukera berdintasuna bermatzea.</p>	Stickak, pilotak, konoak, atea.	<p>5eko taldeak.</p> <p>Irizpidea: kamiseta kolorea.</p> <p>10eko bi talde, hasieran eginiko bi boskote elkartuz.</p>
<b>Lasaitze fasea</b>	<p>Berrito ikasgela hasierako 4 taldeetan banatu eta talde bakoitzak 5 minutu izango ditu ilara batean jarrita botila bati ahalik eta kolpe gehien emateko.</p> <p>Ikasitakoari buruz hitz egin eta materiala jaso.</p>	10-15 min.	<p>Jaurtiketak lantzea, ikasle bakoitzak bere ekarpena egin eta lorturikoaren parte sentitzeko.</p> <p>-Ikasleen iritziari entzun eta</p>	Stickak, pilotak, botila.	<p>5eko taldeak (hasierakoak)</p> <p>Talde osoa</p>

gogoeta egitea.

### 3.SAIOA BELAUN FUTBOLA Espazioa: kiroldegia

	Ekintzak	Iraupena	Jardueraren helburuak	Materiala	Taldekatzeak
<b>Hasierako fasea</b>	<p>Egingo dugun jardueraren berri eman eta arauak azaldu.</p> <p>Ikasle bakoitzari baloi bat hartzeko eskatu eta espazioan nahi duten moduan ibiltzen utzi (beti ere gainontzekoei molestatu gabe).</p>	10 min	<p>Arauen bidez ikasleen jokabide egokia eta segurtasuna bermatzea.</p> <p>Banaka materialarekin kontaktuan jarri eta libreki esperimintatzea</p>	Plastikozko baloiak	Hasieran denok batera eta gero banaka
<b>Fase nagusia</b>	<p>Bikoteka jarri eta pase ezberdinak landu baloi batekin.</p> <p>4 pertsonako taldeak osatu (zerrendaren araberako bikoteak elkartuz) eta bi zelai sortu. Bertan, talde bakoitzak aurkariak baloia ukitu gabe 10 pase egitea lortu (taldekide bakoitzak gutxienez behin ukituz).</p> <p>Zelai berean konoekin bi ate egin eta belaun futboleko partiduak jokatu (arau gisa, taldekide guztiek gutxienez behin pilota ukitu beharko dute eta ezingo da gorputzarekin aurkaria ukitu, ezta baloia lurretik altxatu ere).</p>	40 min	<p>Ohikoak ez diren taldekatzeak sortzea harremanak sustatzeko.</p> <p>Ikasle guztien parte hartzea eta berdintasuna bermatzea</p> <p>Talde laneko balioak lortzea</p> <p>Kontaktuak eragin ditzakeen jarrerak eta ondorioak murriztea (indarkeria, beldurra ...)</p>	Plastikozko baloiak, konoak	<p>Bikoteak. Irizpidea: gelako zerrenda.</p> <p>Laukoteak. Irizpidea: aurreko bikoteak elkartu zerrenda jarraituz.</p>
<b>Lasaitze fasea</b>	<p>Jaurtiketa ariketa: 2 talde sortu eta ilara batean jarrita 10 minututan zutoin edo langari ahalik eta kolpe gehiena ematea lortu beharko dute.</p>	10 min	<p>Talde lanaren bidezko balioak lortzea eta ikasle guztiek parte hartzeko aukera berdina izatea</p>	Plastikozko baloiak, ateak	10 pertsonako bi talde (zerrenda bidez)

### 4.SAIOA PATINAK Espazioa: patioa

	Ekintzak	Iraupena	Jardueraren helburuak	Materiala	Taldekatzeak
<b>Hasierako fasea</b>	<p>Segurtasun materiala jantzi eta espazioan zehar libreki ibili. Arau gisa eta talkarik ez egoteko ezin zaio inori ukitu. Norbaitek zailtasunak izanez gero, frontoian ibili paretari eutsita edo bikoteka gaitasun handiagoa duen norbaitekin.</p>	10-15 min	<p>Ikasleen segurtasuna bermatzea eta espazio seguruak sortzea.</p>	Patinak	Banaka eta zailtasunik izanez gero binaka

<b>Fase nagusia</b>	<p>Ezarritako zirkuitua gainditu (bertan zigzagak eta bihurtuneak aurkituko dituzte).</p> <p>Denek zirkuitua 3 aldiz egin ondoren lokotx biltza egingo dute erreleboak 5 pertsonako 4 taldeetan. Norbaitek bere burua ez badu gai ikusten zirkuitua burutzeko frontoian sorturiko "espazio seguruak" ibili daiteke libreki.</p> <p>Harrapaketa jolasa: konoekin zehazturiko borobil baten kanpotik 3 harrapatzaile egongo dira eta gainontzekoek ihes egiten saiatu beharko dute.</p>	30min	<p>Norberak bere burua gainditzea.</p> <p>Ikasleei ohiko kirolez gain beste trebezia eta gaitasun batzuk daudela ohartaraztea.</p> <p>Ohiko taldekatzeekin haustea</p> <p>Normalean lantzen ez diren trebetasunak lantzea (oreka, koordinazioa ... ) hauetan trebeak diren ikasleak motibatuz eta trebeak ez direnekin espazio seguruak sortuz.</p>	Patinak, konoak	<p>5eko taldeak.</p> <p>Irizpidea: pisuaren arabeko oreka.</p> <p>Banaka, aurkariekin</p>
<b>Lasaitze fasea</b>	<p>Ikasgela osoa ilara batean bikoteka eskutik helduta jarriko da bata bestearen ondoan zubi bat eginez. Kide bakoitzak zubi azpitik igaro beharko du alde batetik bestera.</p> <p>Materiala kendu eta jaso.</p>	10-15 min	<p>Ikasleen arteko harremanak sustatzea</p> <p>Taldearen parte sentitzeko aukera ematea</p> <p>Elkarlanean ongi pasatzea</p>	Patinak	<p>Denak batera, binaka eskutik helduta.</p> <p>Bikoteak egiteko irizpidea: hankaren tamaina.</p>

**5.SAIOA SASKIBALOA Espazioa: kiroldegia**

	<b>Ekintzak</b>	<b>Iraupena</b>	<b>Jardueraren helburuak</b>	<b>Materiala</b>	<b>Taldekatzeak</b>
<b>Hasierako fasea</b>	<p>Ikasle bakoitzak baloi bat hartuko du eta boteka ibiliko dira zelaiaren zehar.</p> <p>Irakasleak kolore bat esatean, kolore horretako marra baterantz joan beharko dira korrika.</p> <p>Jarduera berdina, baina irakasleak esatean saskiratzen joan 4 saskietako batera.</p>	15 min	<p>Landuko den jarduerarekiko konfiantza hartzea</p>	Baloia	Banaka
<b>Fase nagusia</b>	<p>Bi talde osatu (altueraren arabeko oreka bilatuz) eta zapi-zapi jolasean aritu. Bertan zenbaki kopuru ezberdina esan al izango da. Zenbakia esatean baloia hartu eta aurkariaren kanastan saskiratzea izango</p>	35 min	<p>Jolas baten bidez ikasleak harremanetan jartzea.</p> <p>Taldekatzeak egiteko moduari dagokionez, gaitasun eta ezaugarri</p>	Baloia, zapia.	<p>10eko bi talde.</p> <p>Irizpidea: altueraren arabeko oreka.</p>



			dutela jakinik).		
<b>Lasaitze fasea</b>	Ikasgela guztiak borobil handi bat egin eta denen artean izarra egiten saiatu pilota lurrera erori gabe.  Saioa amaitu baina lehen pilota mezulariaren jarduera egin. Kide bakoitzak pilota beste bati jaurti beharko dio eta pilota duenak saioa hitz batekin deskribatu beharko du.	15 min	Ikasgela guztiak talde lanean erronka bat gainditzea, guztien ekarpena beharrezkoa delarik.  Ikasleen emozio eta iritzia azalerazea.	Badminton erraketak eta pilota	Talde handian

## EBALUAZIOA

Egindako saioak ebaluatzeko, hainbat ebaluazio irizpidetan jartzen da fokua. Ikasleek erakutsiriko gaitasunei garrantzia handia eman beharrean, ebaluazio irizpideak gehiago fokatzen dira ikasle bakoitzak izaniko jarreretan eta erakutsitako baloreetan. Horrez gain, ikasturte osoan izandakoa ere kontuan hartu beharko litzateke.

Ebaluazio irizpide batzuk zehazte aldera, ikasleen parte hartzearekiko duten jarreraren, arauetikiko duten errespetuan, talde lanean moldatu eta taldekideekiko dituzten harremanetan, inizatibian eta esfortzuan oinarritzen da ebaluazio mota hau. Bertan, ikasleak kuantitatiboki baloratu beharrean, modu kualitatibo batean ebaluatzen dira, non indar-guneak baliatu eta ahulguneak hobekuntza gisara hartuko diren, prozesu eraikitzaile bat oinarri izateko (ikus ebaluaketarako fitxa, eranskinak 4).

## 8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Alfaro, E. (2008). Mujer joven y deporte. *Estudios de Juventud*, 83.

Amoros, C (1997). *Tiempo de feminismo*. Madril: Catedra.

Aranes, J; Gartzia, Z (1999). Kirol alternatiboak: entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak. *Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzua*, .1  
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/882543/2354697/kirolalternatiboak1.pdf/0063f8fb-6825-bf09-57e2-234413535f4f>- tik berreskuratua

Bonilla, E.; & Rodríguez, P. (2005). *Más allá del dilema de los métodos*. Bogota, Kolonbia: Nomos.

Butler, J. (2007). *El género en disputa*. Bartzelona: Paidós.

- Castelar, A.F (2014). Sobre la diversidad sexual en la escuela. *Educación y Ciudad*, 26, 77-86
- Ceballos, M. (2012). Indicadores aplicados a la visión dominante de la masculinidad por adolescentes de educación secundaria: la importancia del «deber ser» hombre. *Última década*, 36, 141-162.
- Cobo, R. (1995). *Fundamentos del patriarcado moderno. Jean Jacques Rousseau*. Madrid: Catedra. 260-269.or.
- Coll, C. (1987). *Psicología y curriculum*. Bartzelona: Laia.
- Córdoba, D., Sáenz, J., eta Vidarte, P. (2005). *Teoría Queer. Políticas bolleras, maricas, trans,mestizas*. Madrid: Egales.
- Davis, F. (2010). *La comunicación no verbal*. Madrid: Alianza.
- De Gouges, O (1791). *Declaración de los Derechos de la Mujer y de la Ciudadana*.
- Diez,C. (2006). Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad deportiva. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 61, 129-144.
- Eitzen, D.S. eta Sage, D.H. (1997). *Sociology of North American Sport*. Dubuque: Brown.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Saila (2016). *Oinarrizko Hezkuntza Curriculum. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*.
- Falabella,S; Duran,M (2011). “Ser Críticamente Queer” entrevista a Judith Butler. *Nomadias*, 13, 163 – 172. <https://nomadias.uchile.cl/index.php/NO/article/view/15294/15709> -tik berreskuratua
- Friedan, B. (1963). *La mística de la feminidad*. Estatu Batuak
- Guerrero, E. eta Moral, A. (2018). Los grupos de discusión como una experiencia de investigación evaluativa para el alumnado en practicas de educación social. *RES: revista de educación social*. San Vicente Martir unibertsitatea.
- Guerrero, M.A. (2016). La investigación cualitativa. *INNOVA Research Journal*, 2, 1-9.
- Habermas, J. (1994). *Teoría de la acción comunicativa*. Madrid: Catedra.

Krueger, R.A. (1991). *El grupo de discusión. Guía práctica para la investigación aplicada*.  
Madrid: Piramide.

Martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako. Espainiako gorte nagusia. 2007ko martxoaren 23ko EAO, 71. <https://zumaia.eus/eu/udala/sailak/berdintasuna-eta-gazteria-saila/berdintasun-legeak/martxoaren-22ko-3-2007-lege-organikoa-emakumeen-eta-gizonen-berdintasun-eragingarrirako> -tik berreskuratua

Mill, S.J (1869). *La esclavitud femenina. Erresuma Batua*

Millet, K. (1970). *Política sexual*. Erresuma Batua: Rupert Hart-Devis.

Mucchielli, A. (1996). *Diccionario de Métodos Cualitativos en Ciencias Humanas y Sociales*.  
Madrid: Síntesis.

Rodriguez, C (2006). *Género y curriculum*. Akal.

Rubin. G (1986). *El tráfico de mujeres: notas sobre la "economía política" del sexo*. *Nueva Antropología*, 30. <http://www.caladona.org/grups/uploads/2007/05/EI%20trafico%20de%20mujeres2.pdf> –tik berreskuratua

Rubio, M.J. eta Varas, J. (1997). *El análisis de la realidad en la intervención social*. Madrid: CCS.

Saratxaga, K (2014). Partekatzeak lehiatzeak baino lehentasun handiagoa izango duen gizarte-eredua dut helburu kooperatiban eta hezkuntzan. *Hik Hasi*: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20140501/koldo-saratxaga-partekatzeak-lehiatzeak-baino-lehentasun-handiagoa-izango-duen-gizarte-eredua-dut-helburu-kooperatiban-eta-hezkuntzan> -tik berreskuratua.

Sau, V (2000). *Diccionario ideológico feminista*. Bartzelona: Icaria.

Scraton, S. (2000). *Educación física de las niñas: un enfoque feminista*. Madrid: Morata.

Sierra, M.A. (2007). El cuerpo en la educación física: algunas aportaciones e invitación a la reflexión. *Efdeportes*, 12, 115. <http://www.efdeportes.com/efd115/el-cuerpo-en-la-educacion-fisica.htm> -tik berreskuratua.

Simone De Beauvoir (2017). *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra.



- Subirats, M. (2017). *Coeducación, apuesta por la libertad*. Barcelona: Octaedro.
- Suzzi, G (2016). *Gayle Rubin y Judith Butler. Interlocuciones psicoanalíticas para el desmontaje del sistema sexo/género*. Buenos Aires: VIII Congreso Internacional de Investigación y Práctica Profesional en Psicología XXIII Jornadas de Investigación XII Encuentro de Investigadores en Psicología del MERCOSUR. Facultad de Psicología. Universidad de Buenos Aires.
- Theberge, N. (1981). A Critique of Critiques: Radical and Feminist Writings on Sport. *Social forces*, 60. 2. 341-353.
- Valles, M.S. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madrid: Síntesis Sociología.  
<https://metodologiaecs.files.wordpress.com/2014/11/vallesmiguel-tc3a9cnicas-cualitativas-de-investigac3b3n-social-1999.pdf> -tik berreskuratua
- Varela, N (2008). *Feminismo para principiantes*. Barcelona: B de Bolsillo
- Vicente-Pedraz, M; Brozas-Polo, M.P. (2017). Sexo y género en la contienda identitaria del deporte. Propuesta de un debate sobre la competición deportiva multigénero. *Cultura*, 12, 101-110.orr.
- Vilodre, G (2008). Deporte y cultura fitness: la generalización de los cuerpos contemporánea. *Revista Digital Universitaria*, 9(7), 3-11.
- Vizcarra, M.T., Nuño, T., Aristizabal, P., Lasarte, G., eta Alvarez, A. (2015). La perspectiva de género en los títulos de Grado en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria- Gasteiz. *Revista de Docencia Universitaria*, 13. 297-318.
- Vizcarra, M<sup>a</sup>., Garay, B. (2014). Zerbait aurreratu da gorputz-hezkuntzan eta kirolean genero ikuspegitik?. *Jakingarriak*, 74, 46-56.
- Vizcarra, M<sup>a</sup>., Macazaga, A., Rekalde, I. (2009). *Las necesidades y valores de las niñas ante la competición en el deporte escolar*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua
- Wollstonecraft, M. (2005). *Vindicación de los derechos de la mujer*. Madrid: Istmo.

## 9. ERANSKINAK

### Eranskinak 1 – Eztabaidarako erabilitako fitxa

	ERANTZUNA (P1)	ERANTZUNA (P2)	ERANTZUNA (P3)
<b>FORMAZIOA</b>			
-Gaur egungo LH-ko irakasleek generoari buruzko formazio egokia dutela uste duzue?			
-Genero guztiak kontuan hartzen dira edo eredu bitarra soilik jarraitzen da?			
<b>HIZKUNTZA SEXISTA</b>			
-Komentario edo jarrera sexisten aurrean esku hartzen da?			

<b>TALDEKATZEAK</b>			
-Taldekatzek egitean, zer uste duzue hartzen dela kontuan? Nola egin beharko lirateke?			
<b>ESPAZIOA</b>			
Irakasleak nola bideratu beharko luke espazioaren egitura? Espazio seguruak sortzea beharrezkoa ikusten duzue?			
<b>PARTE HARTZEA</b>			
Ohikoa da zenbait hurrek ekintza batzuen aurrean parte hartze edo ardura maila handiagoa (askotan gehiegizkoa) hartzea. Irakasleek nola bideratu beharko lukete hori?			

<b>JARRERAK</b>			
Nire esperientziaren arabera, irakasleak generoaren araberako aurreiritzi ezberdinak dituzte jarrera aldetik bereziki? Zergatik gertatzen da hau?			
<b>CURRICULUMA</b>			
Curriculum ezkutuaren bidez erreprodukzio hau garatzen da. Irakasleak hau lantzen dutela uste duzue? Nola aldatuko zenituzkete joera hauek?			
<b>BOTERE-HARREMANAK</b>			
Haur bakoitzak nola barneratzen ditu botere-harremanak?			

<b>KIROL ANTOLAKETA</b>			
Eskola kirolak bideratzen duen taldeen antolaketa egokia iruditzen zaizue? Zergatik uste duzue, kirol batzuetan, ikasle guztiak nahastu eta beste batzuetan sexuaren arabera banatzen dituztela?			

**Eranskinak 2 – Behaketarako erabilitako fitxa (irakasleak)**

<b>IRAKASLEAK</b>	<b>OHARRAK</b>
<b>FORMAKUNTZA</b>	
Generoari buruzko nahikoa formazioa dute?	

<b>HIZKUNTZA SEXISTA</b>	<p>-Gertaerak azaltzean, sexu jakin batekin lotutako behaketak azpimarratzen dituzte (aurreko astean futbol partidara, 6 neska eta 3 mutil soilik joan ziren).</p> <p>-Egoeren aurrean esku hartzen dute?</p>
<b>TALDEKATZEAK</b>	<p>-Nola osatzen dituzte taldeak?</p> <p>-Gaitasunaren araberako oreka , generoaren araberako oreka ... zer bilatzen da?</p>

<b>ESPAZIOA</b>	
<p>-Irakasleak espazioaren kudeaketa lantzen du? Nola?</p> <p>-Espazio segururik badago?</p>	
<b>PARTE HARTZEA</b>	
<p>-Nola bideratzen du ikasle guztien parte hartzea?</p> <p>-Zeinetan jartzen da arreta gehiago?</p>	

<b>JARRERAK</b>	
<p>-Jarrera desegokien aurrean irakasleak zer egiten du?</p> <p>-Lehiakortasunak sorturiko jarrera agresiboak lantzen dira?</p>	
<b>CURRICULUMA</b>	
<p>Curriculum ezkutua lantzen da?</p>	
<b>BOTERE HARREMANAK</b>	
<p>-Autoritatearen erabilera</p>	



<p>-Generoaren arabera botere-kasuak egone gero, zer egiten du irakasleak?</p>	
<b>KIROL ANTOLAKETA</b>	
<p>-Kirol mistoak sustatzen dira?</p> <p>-Nolakoak dira taldekatzeak orokorrean? Kirolaren arabera aldatzen dira?</p>	

**Eranskinak 3 – Behaketarako erabilitako fitxa (ikasleak)**

<b>IKASLEAK</b>	<b>OHARRAK</b>
<b>HIZKUNTZA SEXISTA</b>	
-Sexuaren arabera mezu	

<p>diskriminatzaileak (zein) erabiltzen dituzte? Nork? Zenekiko?</p>	
<p><b>TALDEKATZEAK</b></p>	
<p>-Haurrak ze taldekatzetan ikusten dira gusturago?</p> <p>-Ikasleei taldeak egiten utziz gero, nola egiten dituzte?</p>	
<p><b>ESPAZIOA</b></p>	
<p>Nork hartzen du espazioaren jabetza handiena? Non kokatzen dira?</p>	

<b>PARTE HARTZEA</b>	
<p>-Parte hartzeko beldurrik sumatzen al da?</p> <p>-Nork hartzen du parte hartzearen pisua bere gain?</p>	
<b>JARRERAK</b>	
<p>-Elkar errespetatzen dira? Elkar laguntzen dira? Nola?</p> <p>-Jarrera desegokirik</p>	

<p>behatu al da? Zein?</p> <p>-Jarrera desegokien aurrean esku hartzen dute?</p>	
<p><b>INDARKERIA</b></p>	
<p>-Lehiakorrak dira? Ze unetan?</p> <p>-Jarrera agresiboak dituzte? Zergatik?</p>	

**BOTERE  
HARREMANAK**

-Aginduak ematen  
dizkie elkarri? Nork  
nori?

Ikasleak haien artean  
zapaltzen dira? Nola?  
Zeinen artean?

**IKASLEEN ROLAK**

Nork hartzen du  
lidertza papera?

Nor geratzen da iskina  
batean?

<p>Ze rol desberdin ikusi dira?</p>	
<p><b>KIROL ANTOLAKETA</b></p>	
<p>-Kirol mistoak sustatzen badira, haurrak nola jarduten dira?</p> <p>-Zein kirol, jarduera dituzte gustuko? Generoaren arabera ezberdintasunik dago?</p>	

**Eranskinak 4 – Ebaluazio fitxa**

**IZENA:**

**DATA:**

	BETI	BATZUETAN	INOIZ
Jardueretan aktiboki parte hartzen du			
Arauk errespetatzen ditu			
Talde lanean ongi jarduten da			
Taldeakideak errespetatzen ditu			
Gertaera kritikoen aurrean esku hartzen du			
Jarrera egokia mantentzen du			
Bere gaitasunen arabera esfortzatzen da			
<b>OHARRAK</b>			